

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5393

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 17koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusten eta aldatzen baita Reydesa Recycling SA sozietateari Legutioko udal-mugar-tean hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak kudeatzeko emandako ingurumen-baimen integratua.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Reydesa Recycling SAK Legution sustatutako hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak kudeatzeko instalazioari.

2.– Reydesa Recycling SAK funtsezkoak ez ziren honako aldaketa hauek eskatu zituen, honako eskaera-data eta organo honen ebazpen-data hauetan:

– 2015eko ekainaren 12a: kudeatzeko hondakinen artean beste batzuk gehitzea (2015eko urriaren 7a).

– 2015eko ekainaren 12a: kudeatzeko hondakinen artean beste batzuk gehitzea (2015eko irailaren 2a).

– 2015eko ekainaren 24a: lan-txanden luzapena (2015eko irailaren 2a).

– 2015eko azaroaren 3a: kudeatzeko hondakinen artean beste batzuk gehitzea (2015eko azaroaren 24a).

– 2016ko maiatzaren 10a: kobrea prozesatzeko instalazio berria (2016ko ekainaren 8a).

– 2016ko abenduaren 15a: kudeatzeko hondakinen artean beste batzuk gehitzea (2016ko abenduaren 20a).

– 2017ko urtarrilaren 21a: kudeatzeko hondakinen artean beste batzuk gehitzea (2017ko otsailaren 8a).

– 2017ko apirilaren 17a: arazketa-etapa hobetzea (2018ko maiatzaren 15a).

– 2018ko otsailaren 6a: kudeatzeko hondakinen artean beste batzuk gehitzea (2018ko martxoaren 5a).

– 2018ko otsailaren 28a: bahe birakarietako bat kentzea (2018ko martxoaren 5a).

– 2018ko maiatzaren 9a: zatikatze-etapa berria (2018ko ekainaren 4a).

– 2018ko maiatzaren 31: dentsitate hezeko ingurune bat instalatzea (2018ko ekainaren 5a).

– 2018ko urriaren 1a: bereizketa granulometrikoko etapa bat kentzea (2018ko azaroaren 11).

– 2018ko urriaren 18a: instalaziorako sarbidea hobetzea (2018ko urriaren 19a).

– 2018ko urriaren 23a: kabina isolatzaileak instalatzea (2018ko azaroaren 24a).

- 2018ko azaroaren 20a: hondakin-lerro berria (2018ko azaroaren 21a).
- 2019ko urtarrilaren 22a: 5. zatikatzaileari soinu-isolamendua jartzea (2019ko urtarrilaren 29a).
- 2019ko martxoaren 7a: danbor bereizlearen instalazioa tokiz mugitzea (2019ko martxoaren 13a).
- 2019ko martxoaren 15a, 22a eta 25a eta apirilaren 1a: EHZko hondakin gehiago sortzea eta X izpien bereizgailu bat instalatzea (2019ko apirilaren 1a).
- 2019ko apirilaren 24a eta maiatzaren 8a: 3. zatikatzailea eta horri lotutako fokua kentzea, 1. zatikatzailearen burdinazko siloa egokitzea eta 3. hondakin-lerroko kutxatila konpontzea (2019ko maiatzaren 29a).
- 2019ko ekainaren 17a eta uztailaren 2a: metalak bereizteko etapa berria, eta zelaia konpontzea (2019ko uztailaren 30a).
- 2019ko abenduaren 4a: hesiaren zati bat ordeztea (2019ko abenduaren 16a).
- 2019ko abenduaren 17a: 2. pabiloian hobekuntzak egitea (2020ko urtarrilaren 13a).
- 2019ko abenduaren 20a: EHZko hondakin gehiago sartzea (2020ko urtarrilaren 23a).
- 2020ko otsailaren 20a: EHZko hondakin gehiago sartzea (2020ko martxoaren 4a).
- 2020ko ekainaren 5a: 96 m³ zolata konpontzea (2020ko ekainaren 9a).
- 2020ko ekainaren 18a: 95 m³ zolata konpontzea (2020ko ekainaren 19a).
- 2020ko ekainaren 29a: 50 m³ zolata konpontzea (2020ko ekainaren 30a).
- 2020ko uztailaren 1a: 80 m³ zolata konpontzea (2020ko uztailaren 7a).
- 2020ko uztailaren 2a: ur-biltegiaren hobi zaharra betetzea (2020ko uztailaren 7a).
- 2020ko irailaren 3a: 3. hondakin-lerroa egokitzea (2020ko urriaren 2a).
- 2020ko urriaren 23a: ura arazteko etapa ordeztea (2020ko azaroaren 4a).
- 2020ko urriaren 23a: X izpien etapa bat ezabatzea (2020ko azaroaren 4a).
- 2020ko abenduaren 4a: euri-urak gordetzeko ahalmena 650 m³-ra handitzea (2020ko abenduaren 22a).
- 2020ko abenduaren 10a: 3. hondakin-lerroko haizagailuari itxitura akustikoa jartzea (2020ko abenduaren 22a).
- 2021eko otsailaren 19a: 2. pabiloiko zutabeak indartzea (2021eko otsailaren 26a).
- 2021eko maiatzaren 4a: 95 m³ zolata konpontzea (2021eko maiatzaren 17a).
- 2021eko maiatzaren 21a: 2. pabiloian BBAlak deskontaminatzeko eremua jartzea (2021eko maiatzaren 24a).
- 2021eko uztailaren 1a: suteen aurkako proiektua betetzeko neurriak ezartzea (2021eko irailaren 28a).
- 2021eko uztailaren 9a: 1. zatikatzailearen ordeiz berri bat jartzea (2021eko urriaren 8a).

– 2021eko urriaren 1a: 4. zatikatzailean laino lehorreko sistema bat jartzea (2021eko azaroaren 5a).

– 2022ko otsailaren 7a: 19 10 04 EHZ sortutako hondakinen artean sartzea (2022ko ekainaren 22a).

– 2022ko martxoaren 1a eta 18a: bereizketa dentsimetriko hezearen etapa (ur-biltegia) eta zizailaz mozteko etapa bat kentzea (2022ko maiatzaren 19a).

3.– Reydesa Recycling SAK funtsezkoak ez ziren honako aldaketa hauek eskatu zituen, honako data hauetan:

– 2022ko apirilaren 22a: bere baimena urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretura egokitzea (errege-dekretu horrek aldatu egiten ditu otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua, Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzkoa).

– 2021eko ekainaren 11: bere baimena apirilaren 13ko 265/2021 Errege Dekretura egokitzea (265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren aldaketari buruzkoa).

– 2022ko ekainaren 27a: 800 m² zolata konpontzea, guztira 160 m³ mugituta.

– 2022ko ekainaren 30a: 12 01 09* EHZ (olioa urarekin) instalazioen mantentze-lanetan sortutako hondakin gisa sartzea.

4.– 2021eko ekainaren 18an, ingurumen-organo honek Araba Garapen Agentziari eta Legutioko Udalari eskatu zien, baimena berrikuste aldera, egoki irizitako ohar guztien nahikotasun-txostena bidaltzeko, instalazioaren inguruan zituzten eskumenen esparruan.

5.– 2021eko uztailaren 13an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zion Reydesa Recycling SA sozietateari: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko bestelako dokumentuak.

6.– 2021eko uztailaren 16an eta abenduaren 2an eta 2022ko urtarrilaren 20an, Reydesa Recycling SAK ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen.

7.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko irailaren 10eko iragarkiaren bidez, Reydesa Recycling SAren ingurumen-baimen integratuaren berrikuspena 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea erabaki zen, egoki irizitako alegazioak aurkezteko, eta, horrenbestez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2021eko urriaren 6an.

8.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaituta, alegaziorik ez dela aurkeztu egiaztatu da.

9.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Legutioko Udalari eta Araba Garapen Agentziari 2022ko otsailaren 7an.

10.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari, 2022ko otsailaren 9an.

11.– 2022ko otsailaren 16an, martxoaren 4an eta apirilaren 27an, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, Legutioko Udalak eta Araba Garapen Agentziak txostenak bidali zituzten, eta espedientean dago jasota emaitza.

12.– 2022ko abuztuaren 9an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Reydesa Recycling SArean esku utzi zen espediente osoa, bertan jasotako emaitzarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

2.– Aipatutako testu bateginaren 26. artikuluan daude ezarrita baimena berrikusteko baldintzak. Horri jarraituz, lau urteko epean, instalazioaren jarduera nagusiari dagozkion TEOen inguruko ondorioak argitaratzen direnetik aurrera, organo eskudunak ziurtatuko du instalazioaren baimenaren baldintza guztiak berrikusi direla eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu direla, eta instalazioak aipatutako TEO erreferentzia-agirien ondorio aplikagarriak betetzen dituela.

3.– 2018ko abuztuaren 17an, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko 2018/1147 Betearazpen Erabakia (EB), hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituen, bat etorri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria-emisioei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauarekin.

4.– 2020ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

5.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu da; beraz, egokia da indarrean dagoen araudi berrira egokitzea, ofizioz, Ingurumeneko Sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren kondizioak, ebazpen horren laugarren apartatuan ezarritakoari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

6.– Ebazpen honetan, kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak, bai instalazioak gehienez isur edo igor ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak zehazteko, bai ingurumen osoa ahalik eta gehien babesteko asmoz instalazioaren ustiapenari ezarriko zaizkion bestelako baldintzak zehazteko. Zehazki, Europako Batzordearen BREF dokumentu honen edukia hartu da kontuan: Hondakinen tratamendurako TEO («Best available techniques conclusions for waste treatment»), 2018ko abuztukoa.

7.– Instalazioko isuri atmosferikoei eta zarataren sorrerari dagokienez, adierazi behar da IPPC Legeak 1. artikuluan ezartzen duela bere helburua atmosferaren, uraren eta lurzoruen kutsadura saihestea dela, edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori murriztu eta kontrolatzea, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

8.– Aipatutako IPPC Legearen 3. artikulua honela definitzen ditu «teknika erabilgarri onenak»: oinarri jakin bat eratzeko teknika batzuen gaitasun praktikoa frogatzen duten jardueren eta ustiapen moten garapen faserik eraginkorrena eta aurreratua; zehazki, isurtzeko muga-balioen oinarria eratzeko eta emisioak eta ingurumen osoan eta pertsonen osasunean emisioek duten eragina saihesteko edo –hori saihetsezina denean– murrizteko baimenaren beste baldintza batzuen oinarria eratzeko teknikak darabiltzaten jardueren eta ustiapen moten garapen faserik eraginkorrena eta aurreratua.

9.– Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakiak (2018/1147/EB Erabakia), zeinaren bidez ezartzen diren hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Industria-emisioei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauari jarraituz, instalazio guztiei aplikatu beharreko baldintza ezartzen ditu, biltegitratzeak eta tratamendu-instalazioak ixteko eskatu gabe.

10.– Hala ere, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako zerbitzu teknikoak instalazioari eta haren inguruneari egiten ari zaizkien jarraipena ikusita, organo honen ustez, jardueraren egungo garapenaren ondorioz sortzen diren isuri atmosferikoak eta akustikoak teknikoki minimizatu daitezke, hondakinen, lehengaien eta produktuen biltegitratzea, manipulazioa eta tratamendua itxiz, zeina «jardueraren eta horren ustiapen modalitateen garapen fase eraginkorragoa eta aurreratuagoa» izango den.

11.– Emisioen Erregelamenduaren 26. artikulua, ingurumen-baimen integratua berrikusteari dagokionez, honako hau ezartzen du 4. apartatuan:

«Betiere, ingurumen-baimen integratua ofizioz berrikusiko da honako kasu hauetan:

(...)

b) Emisioak nabarmen murriz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.

(...))»

12.– Aipatutako testu bateginaren 22.5 artikulua aurreikusten duenez, organo eskudunak, TEOei buruzko ondorioetan deskribatu ez den teknika erabilgarri onenen batean oinarritutako baimen-baldintzak jartzen dituenean, honako hau egiaztatu beharko du:

a) Teknika hori 3. eranskinean azaltzen diren irizpideak bereziki aintzat hartuta zehaztu dela.

b) 7. artikuluko betekizunak betetzen direla.

13.– 3. eranskina oro har eta kasu berezi batean kontuan hartu behar diren alderdiei buruzkoa da (kasu berezi hori 3.12 artikuluan definitzen diren teknika erabilgarri onenak ekintza batek ekar ditzakeen kostuak eta onurak eta zuhertasunaren eta prebentzioaren printzipioak kontuan harturik zehazten diren kasu da). Bada. 3. eranskinak, era berean, hauek aipatzen ditu, besteak beste:

«4.– Eskala industrialean emaitza positiboak izan dituzten prozesu, instalazio edo funtzionamendu-metodo konparagarriak.

5.– Aurrerapen teknikoak eta ezagutza zientifikoaren bilakaera.

6.– Kasuan kasuko isurtzeen izaera, ondorioak eta bolumena.

8.– Teknika erabilgarri onen bat ezartzeko behar den epea.

10.– Isurtzeen inpaktu globala eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko premia».

14.– Hori guztia aintzat hartuta, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak eska dezake hondakinen, lehengaien eta produktuen biltegitratzea, manipulazioa eta tratamendua itxiz isuri atmosferikoak eta akustikoak minimizatzeko neurri teknikoak ezartzea instalazioan, eta, halaber, instalazioaren baimena berrikusi beharko da, aipatutako eskakizuna barne hartzeko.

15.–Administrazio PublikoenAdministrazioProzedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72. artikulua aplikatuko da, zeina izapideen kontzentrazioari buruzkoa baita: «Administrazioa sinplifikatzeko printzipioari jarraikiz, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak».

16.– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak ebazpen hau emateko eskumena du, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

17.– Aipatutako legeria eta oro har zein berariaz gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Reydesa Recycling SAri Legutioko udal-mugartean hondakinak kudeatzeko 2015eko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua berrikustea, Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko (EB) 2018/1147 Betearazpen Erabakian jasotako baldintzetan.

Bigarrena.– Aldaketa hauek ez-funtsezkotzat jotzea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz: Reydesa Recycling SAren baimena urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretura egokitzea –errege-dekretu horrek bi hauek aldatzen ditu: 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Pila eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzkoa–, bai eta Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko apirilaren 13ko 265/2021 Errege Dekretura egokitzea ere –abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorra aldatu zuen–; 800 m² zolata konpontzea, eta 120109* EHZ (olioa urarekin) instalazioen mantentze-lanetan sortutako hondakin gisa sartzea.

Hirugarrena.– Reydesa Recycling SAri Legution hondakinak kudeatzeko lehen aldiz 2015eko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua aldatzea; zehazki, lehenengo eta bigarren apartatuak aldatzea. Honela idatzita geratuko dira:

«Lehenengoa.– Ingurumen-baimen integratua ematea Reydesa Recycling SAri (Legutioko San Antolin kaleko 16.ean du egoitza, Goian industrialdean, eta haren IFK A-48129969 da) Legutioko udal-mugartean duen hondakinak kudeatzeko instalaziorako, ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzen arabera.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. eranskineko honako kategoria honetan dago sartuta:

5.4.– Hondakin arriskugabeen balorizazioa, edo balorizazioaren eta ezabatzearen nahasketa, instalazioek egunean 75 tonatik gorako ahalmena badute eta honako jarduera hauetako bat edo gehiago biltzen badute, Hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatu beharreko arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege Dekretuan jasotakoak izan ezik:

d) Hondakin metalikoak birringailuetan tratatzea, barnean direla hondakin elektrikoak eta elektronikoak eta bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak eta horien osagarriak».

Instalazioa Legutioko Goian industrialdeko lurzati urbanizatu batean kokatuta dago eta horren azalera 46.587 m²-koa da. Horietatik, 8.414 m² bulegoen eraikinak eta pabiloi nagusiak osatzen duten azalera estaliari dagozkio.

Hondakinen balorizazioa garbi bereizitako hiru prozesutan gauzatzen da, eta era berean, aldi baterako biltegiratze-jarduera ere egiten da.

a) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak tratatzea, tratatzekoak diren tresnek dituzten hondakin arriskutsuak berreskuratu eta behar bezala kudeatzeko. Hala, kanpoko instalazio meta-

lurgikoetan aprobetxatzeko moduko zatiki metaliko garbiak lortu nahi dira, baita baimendutako kudeatzaileek aprobetxatzeko moduko zatiki plastikoak ere (R403 kudeaketa-eragiketa kodea). Prozesu horretan, honako tratamendu-lerro hauek bereizten dira:

- Jasotzea.

- Sailkatzea eta biltegitratzea.

- TEEH Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 2003ko urtarrilaren 27ko 2002/96/EE Zuzentarauaren II. eranskineko 1. apartatuan zerrendatutako osagaiak, fluidoak eta materialak erauztea eta modu kontrolatuan erretiratzea eta, ondoren, horretarako baimena daukan hondakin arriskutsuen kudeatzaile bati entregatzea.

- Pieza eta osagai berrerabilgarriak bereiztea.

- Gainerako zatikiak tratamendu mekanikoko lerroan tratatzea.

Urtean 2.000 t tratatzeko ahalmena izango du.

b) Balio-bizitzaren bukaeran dauden ibilgailuak deskontaminatzeko eta desmuntatzeko deskontaminazio-zentroa, 2. pabiloian kokatua (R1202 kudeaketa-eragiketa kodea).

- Jasotzea.

- Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuaren IV. eranskinean zerrendatutako fluidoak, osagaiak eta materialak erauztea eta modu kontrolatuan erretiratzea eta, ondoren, horretarako baimena daukan hondakin arriskutsuen kudeatzaile bati entregatzea.

- Pieza eta osagai berrerabilgarriak bereiztea.

- Gainerako zatikiak tratamendu mekanikoko lerroan tratatzea.

Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak deskontaminatzeko urteko ahalmena gehienez ere 4.000 ibilgailukoa izango da, eta jasotze-eremua, berriz, 66 m²-koa.

c) Hondakin solido konplexu arriskugabe eta deskontaminatu batzuetan dauden bigarren mailako lehengaiak berreskuratzeko tratamendu mekanikoko lerroa (R403 kudeaketa-eragiketa kodea). Horretan, hainbat fasetan, honako jarduerak bereizten dira:

- Jasotzea.

- Biltegitratzea.

- Ebaketa.

- Birrintzea.

- Burdin metalen eta metal ez-burdinazkoen hondakinen sailkapen granulometrikoa eta auke-raketa (banaketa dentsimetrikoa eta magnetikoa).

Tratamendu mekanikoko lerrorako, urtean 60.000 tonako gehieneko tratamendu-ahalmena finkatu da.

d) Aldi baterako biltegitratzea, hondakinak transferitzeko zentroa (D1501/R1301 kudeaketa-eragiketa kodea).

Horretarako, transferentzia-zentro bat dauka, 160 m²-koa eta gehienez 225 t biltegitratzeko ahalmenekoa. Bertan, ekoizlearen instalazioetan ontziratutako hondakinak jaso eta biltegitratzen dira.

Reydesa Recycling SA enpresak hondakinak tratatzeko 2.650.000 kWh energia elektriko konsumitzen du eta 95 m³ gas natural.

Prozesuetan sortutako hondakin-urak kutsadura arrastatzeko arriskua duten euri-urekin batera tratatzen dira. Hondakin-ur guztiak industrialdeko saneamendu-sarera zuzentzen dira, isurbide bakarretik, dekantazio-baltsa batetik eta tratamendu fisiko-kimikoko sistema batetik igaro ondoren.

Sortutako hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak ekipoak mantentzeko eta instalazioa zaintzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Reydesa Recycling SAre jardueran, hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenak (TEO) aplikatzen dira, BREF dokumentuan aipatutakoak («Reference Document on Best Available Techniques in the Waste Treatments», 2018ko abuztua) eta hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituen Europako Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakian aipatutakoak: TEO1, TEO2, TEO3, TEO4, TEO5, TEO6, TEO7, TEO8, TEO11, TEO14, TEO17, TEO18, TEO19, TEO20, TEO21, TEO25, TEO26, TEO27 eta TEO28.

«Bigarrena.– Honako baldintza eta eskakizun hauek ezartzea Reydesa Recycling SA enpresak Legutioko udal-mugaratean (Araba) sustatzen duen hondakin arriskugabeak kudeatzeko jarduera ustiatzeko eta jardunari uzteko:

A) Gutxienez seiehun mila euroko (600.000) erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, honako hauek estaliko dituen: hirugarren pertsonari edo horien ondasunei egiten zaizkien kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta leheneratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako KPI kontsumoko prezioen indizearen arabera handituz.

B) Ehun eta hogeita bederatzita mila berrehun eta berrogeita hamar (129.250) euroko fidantza jartzea, Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 23. artikulua 5.b) apartatua xedatutakoari jarraikiz. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatu eta biltegitratzeko gehieneko gaitasunen arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahalko da, aurreko 12 hilabeteetako KPI kontsumoko prezioen indizearen arabera handituta.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak Reydesa Recycling SAK sustatutako hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimendu arte edo dagokionean jardura uzteko finkatutako baldintzak bete arte; baldintza horiek, betiere, lurzorua kalitate-adierazpenean ezartzen diren betekizunak barne hartuko dituzte.

C) Ingurumen-erantzukizuna.

Reydesa Recycling SL 3. lehentasun-mailako operadore gisa dago sailkatuta ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera. Agindu horren bidez ezartzen dira, hain zuzen ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen –urriaren 23ko APM/1040/2017 Aginduak aldatzen duen horren– azken xedapenetako laugarrenean aurreikusten diren nahitaezko finantza-bermea eratzea exijitzea ekarriko duten ministerio-aginduak onartzeko lehentasun-ordena eta egutegia.

Reydesa Recycling SL enpresak bere jardura profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa (IAA) egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, finantza-bermea eratu behar duen ebaluatzeko, bat etorri 26/2007 Legearen 24. artikuluaekin (2090/2008 Errege Dekretuaren bidez, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea zati batean garatzen duen Erregelamendua onartu zen). Finantza-bermea

eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritza eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako salbuespenei jarraikiz, jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita geratzen bada, agintaritza eskudunari erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio, zeinetan IV.2 eranskinean jasotako informazioa jasoko baita gutxienez.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala.

D) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean eman dizkion datuetan aldaketarik badago, aldaketa horien berri emango dio Reydesa Recycling SAK Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

E) Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala ezarriko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta apartatu hauetan ezarritakoari jarraituz:

F.1.– Hondakinak jaso, manipulatu eta biltegitatzeko baldintzak eta kontrolak.

Instalazioan balorizazioa egiteko onar daitezkeen hondakinak hurrengo apartatuetan daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

Lantegian tratatu beharrekotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, operadoreak kasuan kasuko tratamendu-kontratua igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, beharrezkoa bada, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsita.

Hondakin jakin bat onar daitekeela egiaztatu ondoren, Reydesa Recycling SAK dokumentu horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarrita.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da aldez aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onospena eta ebazpen honen K apartatuan adierazitakoa betetzea.

F.1.1.– Hondakin onargarriak.

Reydesa Recycling SAK Hondakinen Europako Zerrendako HEZ kodea duten hondakin hauek tratatu ahal izango ditu goian aipatutako tratamendu-sistemen bidez. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauan xedatutakoa betez). Halaber, aipatutako erabakiaren arabera emango zaie hondakinei dagokien kodea eta sailkapena, baita Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera ere. Erregelamendu horrek ordeztu du Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentaruaren III. eranskina (2008/98/EE Zuzentaru, hondakinei buruzkoa eta zuzentaru jakin batzuk indargabetzen dituen). Hortaz, hondakin hauek baino ez dira onartuko:

a) TEEHen deskontaminazioa (R1201, R1202, R1203, R1302).

Urtean 2.000 tona tratatzeko ahalmena du.

i) G.1 Tratamendu orokorreko eragiketa.

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena | Balorizazio- eta tratamendu-eragiketa |
|---------------|---|---------------------------------------|
| 16 02 10* | PCBak dituzten edo PCBz kutsatuta dauden ekipoak, 160209 kodean aipatzen ez direnak | R1203, R1302 |
| 16 02 10*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak | |
| 16 02 11* | Klorofluorokarburoak, HCFC, HFC dauzkaten ekipo baztertuak | |
| 16 02 11*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak | |
| 20 01 23* | Klorofluorokarburoak dauzkaten ekipo baztertuak | |
| 20 01 23*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak | |
| 20 01 35* | Osagai arriskutsuak dituzten baztertutako ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak, 200121 eta 200123 kodeetan zehaztutakoak ez direnak | |
| 20 01 35*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak | |
| 16 02 12* | Amianto askea daukaten ekipamendu baztertuak | |
| 16 02 12*-51* | Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak | |
| 16 02 13* | Osagai arriskutsuak dauzkaten ekipo baztertuak, 160209, 160210, 160211 eta 160212 kodeetan aipatzen ez direnak | |
| 13 02 13*-51* | Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak | |
| 20 01 35*-61* | Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak | |
| 16 02 14 | Ekipo baztertuak, 16 02 09 kodetik 16 02 13 kodera bitartean aipatzen ez direnak | R1202, R1302 |
| 16 02 14-23 | LED monitoreak eta pantailak | |
| 20 01 36 | Ekipo elektriko eta elektroniko baztertuak, 20 01 21, 20 01 23 eta 20 01 35 kodeetan aipatzen ez direnak | |
| 20 01 36-23 | LED monitoreak eta pantailak | R1201, R1202, R1302 |
| 16 02 14-32 | LED lanparak | |
| 20 01 36-32 | LED lanparak | R1201, R1205, R1302 |
| 16 02 14-42 | Gailu handiak (gainerakoak) | |
| 16 02 14-52 | Gailu txikiak (gainerakoak) | |
| 20 01 36-42 | Gailu handiak (gainerakoak) | |
| 20 01 36-52 | Gailu txikiak (gainerakoak) | |

ii) G3 (R1203, R1302).

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|---------------|---|
| 16 02 13* | Osagai arriskutsuak dauzkaten ekipo baztertuak, 160209, 160210, 160211 eta 160212 kodeetan aipatzen ez direnak |
| 16 02 13*-21* | CRT monitoreak eta pantailak |
| 20 01 35* | Osagai arriskutsuak dauzkaten baztertutako ekipo elektrikoak eta elektronikoak, 200123 kodean aipatzen ez direnak |
| 20 01 35*-21* | CRT monitoreak eta pantailak |

iii) G4 (R1203, R1302).

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|---------------|---|
| 16 02 13* | Osagai arriskutsuak dauzkaten ekipo baztertuak, 160209, 160210 eta 160212 kodeetan aipatzen ez direnak |
| 16 02 13*-22* | Osagai arriskutsuak dauzkaten beste monitore eta pantaila batzuk |
| 20 01 35* | Osagai arriskutsuak dauzkaten baztertutako ekipo elektrikoak eta elektronikoak, 200123 kodean aipatzen ez direnak |
| 20 01 35*22* | Osagai arriskutsuak dauzkaten beste monitore eta pantaila batzuk |

Baimen honetarako kontuan hartuko diren produktuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren TEEH Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 2012ko uztailaren 4ko 2012/19/EB Zuzentarauan jasotakoak izango dira.

Nolanahi ere, ozono geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduan sartuta dauden substantzia aratuak dituzten tresnak baimen honetatik kanpo geratuko dira.

Era berean, kutsatuta dauden hondakin guztiak baztertzen dira, baita arrisku-ezaugarri hauek egotz dakizkiekeen osagai edo substantzia-arrastoak dituzten guztiak ere:

- Hondakin arriskutsu leherkorrak.
- Hondakin arriskutsu infekziosoak.
- Substantzia erradioaktiboak dituzten hondakinak.
- Amiantoeko hondakinak eta amiantoa daukaten osagaiak.

Deskontaminatzeko eragiketek, nahitaez, erauztea eta modu kontrolatuan erretiratzea barne hartuko dute, ondoren horretarako baimena daukan hondakin arriskutsuen kudeatzaile bati Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren TEEH Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 2012ko uztailaren 4ko 2012/19/EE Zuzentaruaren VII. eranskinean zerrendatutako osagaiak, fluidoak eta materialak entregatzeko.

Pieza eta osagai berrerabilgarriak helburu horretara zuzendu beharko dira lehentasunez, industria-segurtasuneko araudiaren arabera merkaturatuta.

Aipatutako erauzketa- eta erretiratze-eragiketak egiteak tresna elektriko eta elektronikoen benetako deskontaminazioa bermatuko du, eta, ondorioz, horiek hondakin arriskutsutzat ez jotzea.

Pieza eta osagai berrerabilezinak birziklatu egingo dira. Horrela, zatiki metalikoak eta plastikoak lortuko dira eta gero hondakin arriskugabeen kudeatzaile baimenduari entregatuko zaizkio helburu horretarako, edo lehengai gisa, kasuan kasu.

b) TEEHak biltegitratzea (R1301).

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|---------------|--|
| 16 02 11* | Klorofluorokarburoak, HCFC, HFC dauzkaten ekipo baztertuak |
| 16 02 11*-11* | CFC, HCFC, HFC, HC, NH ₃ duten gailuak |
| 16 02 11*-12* | Aire-girogailuak |
| 16 02 11*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak |
| 16 02 12* | Amianto askea daukaten ekipamendu baztertuak |
| 16 02 12*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak |
| 16 02 12*-51* | Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak |
| 16 02 13* | Osagai arriskutsuak dituzten ekipo baztertuak [2], 16 02 09tik 16 02 12rako kodeetan aipatzen ez direnak |
| 16 02 13*-13* | Zirkuituetan edo kondentsadoreetan olioak duten gailuak |
| 16 02 13*-21* | CRT monitoreak eta pantailak |
| 16 02 13*-22* | Osagai arriskutsuak dauzkaten beste monitore eta pantaila batzuk |
| 16 02 13*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak |
| 16 02 13*-51* | Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak |
| 16 02 13*-61* | Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak |
| 16 02 13*-73* | Panel fotovoltaiko arriskutsuak |
| 16 02 14 | Ekipo baztertuak, 16 02 09 kodetik 16 02 13 kodera bitartean aipatzen ez direnak |
| 16 02 14-23 | LED monitoreak eta pantailak |
| 16 02 14-32 | LED lanparak |
| 16 02 14-42 | Gailu handiak (gainerakoak) |
| 16 02 14-52 | Gailu txikiak (gainerakoak) |
| 16 02 14-62 | Osagai arriskutsurik ez duten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak |
| 16 02 14-71 | Siliziozko panel fotovoltaiko arriskugabeak |
| 16 02 14-72 | Bestelako panel fotovoltaiko arriskugabeak |
| 20 01 21* | Hodi fluoreszenteak eta merkurioa daukaten bestelako hondakinak |
| 20 01 21*-31* | Deskargako lanparak, LED ez direnak eta fluoreszenteak. |
| 20 01 23* | Klorofluorokarburoak dauzkaten ekipo baztertuak |
| 20 01 23*-11* | CFC, HCFC, HFC, HC, NH ₃ duten gailuak |
| 20 01 23*-12* | Aire-girogailuak |
| 20 01 23*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak |
| 20 01 35* | Osagai arriskutsuak dauzkaten ekipo elektriko eta elektronikoko baztertuak, 20 01 21 eta 20 01 23 kodeetan aipatzen ez direnak |
| 20 01 35*-13* | Zirkuituetan edo kondentsadoreetan olioak duten gailuak |
| 20 01 35*-21* | CRT monitoreak eta pantailak |
| 20 01 35*-22* | Osagai arriskutsuak dauzkaten beste monitore eta pantaila batzuk |
| 20 01 35*-41* | Osagai arriskutsuak dituzten gailu handiak |
| 20 01 35*-51* | Osagai arriskutsuak eta pilak dituzten gailu txikiak |
| 20 01 35*-61* | Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak |
| 20 01 36 | Ekipo elektriko eta elektronikoko baztertuak, 20 01 21, 20 01 23 eta 20 01 35 kodeetan aipatzen ez direnak |
| 20 01 36-23 | LED monitoreak eta pantailak |
| 20 01 36-32 | LED lanparak |
| 20 01 36-42 | Gailu handiak (gainerakoak) |
| 20 01 36-52 | Gailu txikiak (gainerakoak) |
| 20 01 36-62 | Osagai arriskutsurik ez duten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak |

Biltegitratzeko gehieneko ahalmena 225 tonakoa da, eta 160 m²-ko azalera du.

c) Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuen tratamendu-lerroa (R1202 kudeaketa-eragiketa).

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|-----------|--|
| 16 01 04* | Bizitza baliagarriaren bukaeran dauden ibilgailuak |

Baimen honek bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak jaso, aldi baterako biltegitratu eta deskontaminatzeko eragiketak eta ondoren berrerabili eta birziklatu ahal izateko desmuntatze- eta prestaketa-eragiketak bakarrik hartzen ditu barnean, 265/2021 Errege Dekretuaren arabera (265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena). 3. artikuluko a) apartatuan xedatutakoaren arabera, ibilgailuak honako hau dira: «Garraibide autopropultsatuak, gutxienez bi gurpilekoak, osoak, osatuak edo osatu gabeak, eta 25 km/h-tik gorako gehieneko abiadura izateko diseinatuak, Trafikoko Zuzendaritza Nagusian matrikula daitezkeenak».

Deskontaminatzeko eragiketek barnean hartuko dute aipatu den arauaren IV. eranskineko 1. apartatuan zerrendatutako fluidoak, osagaiak eta materialak erauztea eta modu kontrolatuan erretiratzea eta, ondoren, horretarako baimena daukan hondakin arriskutsuen kudeatzaile bati entregatzea.

Aipatutako erauzketa- eta erretiratze-eragiketak egiteak ibilgailuaren benetako deskontaminazioa bermatuko du, eta, ondorioz, hondakin arriskugabetzat jotzea (EHZ 160106).

Deskontaminatu ondorengo tratamendu-eragiketen barruan –berrerabilpena eta birziklatzea sustatzera zuzenduta daude–, nahitaez, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuen kudeaketari buruzko apirilaren 13ko 265/2021 Errege Dekretuaren IV. eranskineko 2. apartatuan zerrendatutako pieza eta osagai guztiak desmuntatzea eta modu kontrolatuan erretiratzea sartzen da –265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena–.

Pieza eta osagai berrerabilgarriak helburu horretara zuzendu beharko dira lehentasunez, industria-segurtasuneko araudiaren arabera merkaturatuta.

Pieza eta osagai berrerabilezinak birziklatu egingo dira, horretarako baimendutako hondakin arriskugabeen kudeatzaile baimenduari entregatuta.

d) Tratamendu mekanikoko lerroa (R403).

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|-----------|---|
| 120101 | Burdin metalen karraka-hautsak eta txirbilak |
| 120103 | Metal ez-burdinazkoen karraka-hautsak eta txirbilak |
| 150104 | Metalezko ontziak |
| 150105 | Ontzi konposatuak |
| 150106 | Ontzi mistoak |

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|-----------|---|
| 160106 | Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak, likido edo bestelako osagai arriskutsurik gabekoak |
| 160117 | Metal ferrosoak |
| 160118 | Metal ez-ferrosoak |
| 160122 | Beste kategorietan aipatzen ez diren osagaiak |
| 160199 | Beste kategorietan aipatzen ez diren hondakinak |
| 160214 | Ekipo baztertuak, 16 02 09 kodetik 16 02 13 kodera bitartean aipatzen ez direnak |
| 160216 | Baztertutako ekipoetatik kendutako osagaiak, kodean aipatzen ez direnak |
| 170401 | Kobrea, brontzea, letoia |
| 170402 | Aluminioa |
| 170404 | Zinka |
| 170405 | Burdina eta altzairua |
| 170406 | Eztainua |
| 170407 | Metal nahasiak |
| 170410* | Hidrokarburoak, harrikitz-mundruna eta bestelako substantzia arriskutsuak dauzkaten kableak |
| 170411 | Kablea, 170410* kodean aipatzen ez dena |
| 170904 | Eraikuntzako eta eraispenetako hondakin nahastuak, 17 09 01, 17 09 02 eta 17 09 03 kodeetan aipatzen ez direnak |
| 190102 | Labe-hondoaren errautsetatik bereizitako burdinazko materialak |
| 190112 | Labe-hondoko errautsak eta zepak, 19 01 11 kodean aipatzen ez direnak |
| 191001 | Burdina- eta altzairu-hondakinak |
| 191002 | Hondakin ez-burdinazkoak |
| 191004 | Zatikitze-frakzio arinak (<i>fluff-light</i>) eta hautsa, 19 10 03 kodean aipatzen ez direnak |
| 191006 | Bestelako frakzioak, 19 10 05 kodean aipatzen ez direnak |
| 191202 | Burdin metalak |
| 191203 | Metal ez-burdinazkoak |
| 191212 | Hondakinen tratamendu mekanikoan sortutako bestelako hondakinak (materialen nahasteak barne), 19 12 11 kodean aipatzen ez direnak |
| 200136 | Ekipo elektriko eta elektroniko baztertuak, 20 01 21, 20 01 23 eta 20 01 35 kodeetan aipatzen ez direnak |
| 200140 | Metalak |

e) Transferentzia zentroa – Aldi baterako biltegiatzea (D1501/R1301).

| EHZ kodea | Hondakinaren deskribapena |
|-----------|--|
| 16 02 15* | Ekipo baztertuetatik kendutako osagai arriskutsuak |
| 16 06 01* | Berunezko bateriak |

F.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, ebazpen honetako baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Kontrol horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, onarpen-parametro mugatzaile

eta baldintzatzaileak ezarriko dira. Egiatitze hori sarrera-kontrolako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da alde zurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onespina eta ebazpen honen K apartatuan adierazitakoa betetzea.

Kudeatu beharreko hondakinen zerrenda (EHZ) handitzeko eskaeran, Reydesa Recycling SL enpresak hondakin berri horiek nola kudeatuko diren adierazi beharko du, eta lekualdatze-operadorearekin egindako tratamendu-kontratua aurkeztu beharko du. Proposatutako kudeaketa-bideetan izandako aldaketak organo honi jakinarazi behar zaizkio haiek egin aurretik, eta, jakinarazpen horrekin batera, tratamendu-kontratu berria igorriko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, hura baliozkotu dezan.

Hondakinen hierarkiaren printzipioa aplikatuz eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien osagaiak, zati-multzoak eta kontsumigarriak berrerabiltzeko prestatzea lehenetsiz, TEEH hondakinek, instalazioan tratatu ahal izateko, berrerabiltzeko prestatzeko prozesu batean baztertuak izan behar dute, eta egiaztatu beharko da, batetik, R12 kudeaketa-eragiketa bat eginda mota guztietako fluidoak kendu zaizkiela –olioak, lubrifikatzaileak eta abar barne–, eta, bestetik, bai materialak, bai osagaiak, modu selektiboan tratatu direla, araudi aplikagarrian xedatutakoari jarraituz.

Kudeatzaile baimenduekin akordioak egingo dira TEEH hondakinak prestatzeko eta berrerabiltzeko.

Instalazioan tratatuko diren hondakin guztiak tratamendu-kontratu batean jasoko dira, hondakina lekualdatzeaz arduratzen den operadorearen eta Reydesa Recycling SLren artean sinatu beharrezkoa bera. Tratamendu-kontratuak behar bezala bete beharko du Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoa, eta hauek hartu beharko ditu barnean, besteak beste: hondakinek jaso behar duten tratamendua, hondakinak onartzeko baldintzak eta hondakinari uko egiteko aukerarekin lotuta bi alderdiek dituzten betebeharrak.

Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak tratamendu-instalazio baimendu batean (TIB) deskontaminatzeko onartzen direnean, dokumentatu egin behar da, dagokion suntsiketa-ziurtagiria edo ingurumen-tratamenduaren ziurtagiria eginda, apirilaren 13ko 265/2021 Errege Dekretuaren III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Hondakinak lekualdatzen diren guztietan, behar bezala bete beharko dira ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora arau hori garatuta erabakitzeko dena.

Horrekin bat etorritik, hondakinak lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua arabera.

Unean uneko egoeraren ezaugarriak errepertatuta, ingurumen-organoak azalpenak eska ditzake, argitu diezaioten zergatik den ekonomikoki eta teknikoki ezinezkoa baimen honen barneko hondakinak Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzea, eta hori egingo du autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioak aintzat hartuta, eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Kudeatzeko eta Prebenitzeko 2020-2030 Planaren helburu estrategikoak betetzeko.

Edonola ere, birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakinak helburu horietara bideratuko dira, eta Reydesa Recycling SLk betetako tratamendu-kontratuetan jasoko da gertaera hori.

Reydesa Recycling SLk lekualdaketari buruzko informazioa jaso beharko du bere fitxategi kronologikoan, eta identifikazio-agiriaren kopia sinatua gorde beharko du hiru urtez; bertan, hondakinak entregatu eta onartu izana adieraziko da.

Aldez aurretik jakinarazi beharreko hondakinen lekualdaketak identifikatzeko dokumentuen kasuan, Reydesa Recycling SL enpresak hondakina jasotzen denetik gehienez 30 eguneko epea izango du identifikazio-agiri hori organo eskudunari bidaltzeko. Bidaltzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ingurumen-informazioa kudeatzeko sistema baliatuko du.

Hondakin bat baztertzen denean, eta hondakin horren EHZ kodea hondakin baimenduena bada, tratamendu-kontratuan aurreikusitakoarekin bat etorriz, organo honi jakinarazpen bat bidaliko zaio berehala (ippc@euskadi.eus helbide elektronikora), eta honako hauek jakinarazi beharko zaizkio:

- Baztertzeko arrazoia.
- Lekualdaketaren operadoreak hondakin baztertua kudeatzeko aukeratu duen bide alternatiboa.

Baldin eta onartu ez den partida beste autonomia-erkidego batetik badator, jatorrizko ingurumen-organismoari ere jakinarazi egin beharko zaio.

Hondakin bat ezin bada onartu, zeinaren EHZ kodea hondakin baimenduen artean baitago, tratamendu negatiboaren kontratu bat egin beharko da, hondakin horiek kudeatzeko ezintasunaren arrazoiak azaltzen dituen.

F.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen geralekuek zolata iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko jarioak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Zamalanak egitean, substantzia arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak bete beharko dira.

c) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipoen estankotasunak ere, emisio lausoak edo kontrolik gabeak saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

d) Erabiltzen ez diren ibilgailuak, jasotakoak, berrerabiltzeko moduan dauden piezak hondatu gabe manipulatu dira, berrerabiltzera bideratzeko.

e) TEEH hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko baldintzek TEEH hondakinak eta horien osagaiak prestatzea eta berrerabiltzea ahalbidetu behar dute, eta ez dira apurtu behar, ezta gehiegi pilatu ere, substantziarik isuri edo materialik galdu behar, eta oliorik eta likidorik isuri behar. Merkurioa duten lanparak biltegituz gero, behar bezala beteko dira horiek jaso eta garraiatzeko baldintza espezifikokoak, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren VII. eranskinean jasotzen direnak.

Aurrez manipulatu diren, hondatuta dauden edo osagai guztiak ez dituzten gailuak jasotzen badira, gertakari hori behar bezala jaso beharko da F.1.5. apartatuan aipatzen den artxibo kronologikoan.

F.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

Balorizatzekoak diren hondakinen gehieneko biltegitratze-denbora bi urtekoa izango da arrisku-gabeen kasuan; arriskutsuen kasuan, berriz, sei hilekoa.

Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihes edo isuriei eusteko gai direnak, eta biltegitratze-eremu bereziak izan beharko dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

Hondakin arriskutsuak biltegitratzearen ondoriozko arriskuak murrizte aldera, Reydesa Recycling SL enpresak gune berezian biltegitratu beharko ditu hondakinok. Gune horrek estalita egon beharko du eta lurzoru estankoa izan beharko ditu.

Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

Hautsezko hondakinak eta soltean hartutakoak pabiloiaren barruko piloetan edo hobietan biltegitratuko dira.

Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibia-tuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezzen. Bilketa-sistemek independenteak izan behar dute isuriren bat gertatu eta nahasiz gero arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakin motetarako.

Baldin eta hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat badago, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Legutioko Udalari.

Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, Reydesa Recycling SLk F.1.1 apartatuan adierazitako hondakinen transferentzia-zentro gisa jardun ahal izango du, hondakinak kudeatzeko beste instalazio baimendu batera eramateko.

TEEHen deskontaminazioa eta biltegitratzea.

Instalazioak hondakinak pisatzeko baskula izango du.

TEEHak berezita bildu beharko dira, gutxienez, 110/2015 Errege Dekretuaren VIII. eranskineko 1. taulan aurreikusten diren zatikiak kontuan hartuta: «TEEHen kategorien, TEEHen bilketa-frakzioen eta EHZ-TEEH kodeen arteko baliokidetasunak».

Halaber, TEEHak biltegitratzeko eremu berezi estali bat sortu beharko da, berrerabiltzeko presatzeaz arduratzen diren eragileek ikuskatzeko baldintza egokiak dituen.

Erabiltzen ez diren ibilgailuak tratatzeko lerroa.

a) Deskontaminatu aurretik biltegitratu beharreko ibilgailuetarako behar besteko eremua eduki behar da, zoladura iragazgaitzez hornitua, eta isuriak biltzeko instalazioz hornitua, estalita baldin badago, edo urak isuri aurretik horiek biltzeko eta tratatzeko instalazioz hornitua, hidrokarburoen bereizgailua barne dutela, estali gabe baldin badago. Sistema guztiek bat etorri behar dute administrazio publikoek ezarritako osasun- eta ingurumen-araudiekin».

b) Deskontaminatzeko eremuek honelakoak izan behar dute: estaliak, zoladura iragazgaitzez eta isuriak biltzeko instalazioz hornituak; eta deskontaminatu beharreko ibilgailu kopurura eta tipo-

logiara egokitutako ekipo eta instalazioak eduki beharko dituzte (jasogailuak edo hobiak, fluidoak xurgatzeko/erauzteko sistemak, eta abar).

c) Ibilgailuetatik kendutako osagaiak, hondakin arriskutsuak badituzte –bereziki, olioak–, zoladura iragazgaitza duten leku estalietan biltegitatu behar dira.

d) Edukiontzia egokiak eduki behar dira honako osagai hauek biltegitatzeko: bateriak (istripuren bat gertatuz gero, elektrolitoa bertan edo hurbil neutralizatzeko aukerarekin), iragazkiak eta poliklorobifenilozko/polikloroterfenilozko (PCB/PCT) kondentsadoreak.

e) Depositu egokiak eduki behar dira bizitza baliagarriaren bukaeran dauden ibilgailuen fluidoak bereizita biltegitatzeko, hau da, erregaia, olioak –motorrekoak, abiadura-kaxetakoak, transmisio-koak eta hidraulikoak, eta balazten likidoak–, likido hozgarriak, izotz-kontrako likidoak, aire girotuaren ekipoko fluidoak eta ibilgailutik kendutako beste edozein fluido.

f) Urak biltzeko eta tratatzeko ekipoak eduki behar dira; estali gabeko guneen kasuan, baita euri-urak bildu eta tratatzekoak ere. Ur horiek isuri aurretik tratatu behar dira, administrazio publikoek ezarritako ingurumen- eta osasun-araudiekin bat etorriz.

g) Pneumatiko erabiliak biltegitatzeko gune egokiak eduki behar dira. Gune horietan, suteen aurkako neurriak eta biltegitatzearen ondoriozko arriskuak prebenitzekoak ere sartu behar dira.

h) Deskontaminatutako ibilgailuak biltegitatzeko eremu egokiak eduki behar dira, perimetro osoan hesituak edo itxiak; biltegitatze-guneko lurzoruak, gutxienez, behar bezala trinkotuta egon behar du, eta bere funtzio espezifikoa segurtasun-baldintza egokietan betetzeko egokituta, eta lurrazaleko urak biltzeko sistema bat izan behar du.

F.1.5.– Kudeatutako hondakinen datu-erregistroa.

Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Reydesa Recycling SL (Reydesa Zabaldea) enpresak artxibategi fisiko edo telematiko bat izan beharko du, esku hartu duen jarduera guztiak ordena kronologikoan jasotzeko. Aipatutako fitxategi kronologikoan sartuko da, orobat, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa, eta bertan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

– Onartutako hondakinen jatorria (jatorria eta prozesua, enpresa sortzailea eta enpresa garraiolaria).

– Hondakin horien kantitateak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

– Hondakin-partida bakoitzaren onarpen- eta harrera-data, eta, hala dagokionean, ematean sortutako kontrol- zein segimendu-agiria.

– Onartu ez diren hondakin-partidei buruzko datuen erregistroa (jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, ez onartzeko arrazoiak eta ordezeko helmuga).

– Biltegitatutako hondakinak instalazioko zer tokitan dauden.

– Hondakin sortak aurretik egokitzeko edo multzokatzeko eragiketak, datak, parametroak eta partida horiei buruzko datuak, hondakinen ondorengo helmuga eta sorta bakoitzari emandako HEZ kodea.

– Instalazioko kudeaketa-lanen datak edo azken kudeatzaile baimenduari bidalketa egin zaionekoa, kudeatzaile horren identifikazio-datuak, eta, hala badagokio, sortutako identifikazio agiriarenak.

– Bereizitako hondakin arriskutsuen mota bakoitzaren izaera eta pisuarekiko zatikia.

Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikularekin bat etorritik, urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da artxibo kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Laburpen-memoriak ekitaldi bakoitzaren amaieran behin-behinean biltegiatutako hondakinen eta hondakin kopuruen zerrenda ere jasoko du, instalazioan tratatzeko onartuta baina oraindik tratatzeke dauden hondakinena bai eta sortutako hondakinena ere.

Apartatu honetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

TEEHen deskontaminazioa eta biltegiatzea.

TEEH hondakinak kudeatzeko, fitxategi kronologikoak bat etorri beharko du 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinarekin, eta bertan datu hauek jasoko dira gutxienez, ordena kronologikoan:

A) Sarrera.

a) TEEHa noiz sartu den.

b) TEEHa entregatu duen erabiltzailearen edo erakundearen identifikazioa (kasuan-kasuan aplikatutakoaren arabera): TEEHen partikular/banatzaile/garbigune/ekoizle-sare/ekoizle profesionala.

c) Izena (sozietate-izena), helbidea, autonomia-erkidegoa, IFZ, ingurumeneko identifikazio-zenbakia, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko inskripzio-zenbakia.

d) Garraiolaria (halakorik badago): izena (sozietate-izena), IFZ, helbidea, autonomia-erkidegoa eta kudeatzailearen kodea.

e) Entregatutako tresna mota eta marka.

f) Pisua.

g) EHZ-TEEH kodea.

h) Erabilera (etxekoa/profesionala).

i) Serie-zenbakia (ahal den guztietan).

j) TEEHaren etiketaren edo instalazioan TEEHak gordetzen diren edukiontzia-erreferentzia-zenbakia.

k) Oharrak eta gorabeherak; adibidez, funtzionamendu-egoerari buruzkoak, berriz erabiltzeko aukerari buruzkoak, betetik dagoen, eta abar.

Gailu txikiei eta lanparei dagokienez, sarrerako banakako informazio hori ez da beharrezkoa izango, eta horren ordez frakzio horretarako berariazko edukiontzien identifikazioa beharko da.

B) TEEHak edukiontzi edo kaioletan ateratzea.

a) Edukiontzia edo kaiola instalaziotik irteteko data.

b) EHZ-TEEH kodea.

c) Edukiontzi-erreferentzia, TEEHen irteera-pisua, edukiontzia.

d) Garraiolariaren identifikazioa.

e) Helmuga (hondakinak kudeatzeko instalazioaren datuak).

1) Helbidea eta autonomia-erkidegoa.

2) Mota: berrerabiltzeko prestatzeko zentroa (BPZ), kargaren transferentzia- edo bilketa-zentroa, tratamendu espezifikorako instalazioa.

3) Ingurumeneko identifikazio-zenbakia.

4) IFZ.

5) Ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroko inskripzio-zenbakia.

f) Bildu eta kudeatzen duen erakundeari buruzko informazioa (esleipen-bulegoa edo biltzeko instalazioak kontratatutako kudeatzailea).

g) Esleipen-bulegoaren bilketaren erreferentzia-zenbakia.

h) Biltzeko instalaziotik bilketa finantzatzen duen erantzukizun hedatuko sistema.

Artxibo kronologiko horrek, deskontaminazioaren pean jartzen diren TEEHen kasuan, informazio hau ere jasoko du.

a) Tratamendu-lanak, datak, kontrol-parametroak eta prozesuari buruzko datuak.

b) Aldi baterako biltegitratutako hondakin arriskutsuak, tresna elektriko edo elektroniko deskontaminatuetakoak: mota, identifikazio-kodeak, kopuruak eta ontziratze-datak, instalazioko kokapena.

c) Kudeatzaile baimenduari entregatutako hondakin arriskutsuak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak, kudeatzailearen identifikazio-datuak eta entrega bakoitza egiaztatzen duen identifikazio-dokumentuaren zenbakia.

d) Berrerabiltzeko merkaturatutako tresna elektriko eta elektronikoen piezak eta osagai desmuntatuak: kopuruak pisuaren arabera, motak.

e) Hondakin arriskugabeen kudeatzaile baimenduari birziklatzeko entregatutako tresna elektriko eta elektronikoen piezak eta osagaiak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak eta hartu dituen kudeatzailearen identifikazio-datuak, kasu bakoitzean.

TEEHen kudeaketa-jarduerarako, urteko memoriak otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren XII. eranskineko gutxieneko edukia jaso beharko du.

Fitxategi kronologikoa eta jasotako TEEH hondakinei buruzko urteko memoria plataforma elektronikoan kargatuko dira erabilgarri dagoenean, 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan

agindu bezala. Plataforma elektronikoko horren bitartez, fitxategi kronologikoari eta urteko memoria-
ren lanketari dagozkion betebeharrak bete ahal izango dira.

Erabiltzen ez diren ibilgailuak tratatzeko lerroa.

Aurrera eramandako kudeaketa-lanak barne hartzen dituen erregistro bat egin beharko du eta
gutxienez honako datu hauek jaso beharko ditu:

- Jasotako ibilgailu bakoitzaren identifikazioa, jatorria eta pisua.
- Ibilgailuaren egoera (istripua izan duen, osorik dagoen, partzialki desmuntatuta dagoen, eta
abar) eta argazki-erreportajea, hala badagokio.
- Ibilgailu bakoitzaren jasotze-data eta egindako suntsiketa-ziurtagiriaren erregistro-zenbakia.
- Ibilgailu bakoitzaren deskontaminazio-data.
- Aldi baterako biltegiatutako hondakin arriskutsuak, ibilgailu deskontaminatuetakoak: mota,
identifikazio-kodeak, kopuruak eta ontziratze-datak, instalazioko kokapena.
- Jardueran sortu eta kudeatzaileari entregatu arte aldi baterako biltegiatutako bestelako
hondakin arriskutsuak (xurgatzaileak, koipe-bereizgailuen hondakinak, eta abar): mota, identifi-
kazio-kodeak, kopuruak eta ontziratze-datak, instalazioko kokapena.
- Kudeatzaile baimenduari entregatutako hondakin arriskutsuak: mota, identifikazio-kodea,
kopuruak, entrega-datak, kudeatzailearen identifikazio-datuak eta entrega bakoitza egiaztatzen
duen kontrol- eta jarraipen-dokumentuaren zenbakia.
- Ibilgailuetatik desmuntatutako piezak eta osagaiak, berrerabiltzeko merkaturatuak: kopuruak
pisuaren arabera, motak.
- Hondakin arriskugabeen kudeatzaile baimenduari birziklatzeko entregatutako ibilgailuen pieza
eta osagai desmuntatuak: mota, identifikazio-kodea, kopuruak, entrega-datak eta hartu dituen
kudeatzailearen identifikazio-datuak, kasu bakoitzean.
- Deskontaminatu eta desmuntatu ondoren beste tratamendu-instalazio baimendu bati zati-
tzeko entregatutako ibilgailuak: kopuruak, entrega-datak eta hartzailearen identifikazio-datuak.

F.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketei
buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Errege-
lamenduan ezarritakoa bete beharko da.

TEEHen kudeatzaileei dagokienez, TEEH horiek Europar Batasuneko herrialdeetara nahiz
Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetara lekualdatzeari buruzko informazioa kargatuko da
110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan aipatzen den plataforma elektronikoa.

Horrez gain, aurreikusten bada hondakindegian ezabatu beharko direla inportatu beharreko
hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizazio- eta
ezabatze-tratamendutik lortutako korrante esanguratsuren bat, orduan, kontsulta bat egin beharko
zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAEko
Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020-2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko
plangintzaren helburuekin.

F.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

Kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, dagozkien adostasun-deklarazioak egin direla egiaztatu beharko da, Europako Kontseiluaren 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Erregelamendu horretan, txatar mota jakin batzuek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak finkatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.

Era berean, aipatutako arauaren I. eranskinean finkatutakoarekin bat ez datozen ezaugarriak dituzten kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, kudeatzaile baimendu baten onarpen-agiria aurkeztuta egiaztatuko da hondakin gisako kudeaketa.

F.2.1.– Instalazioan tratatutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegitratzeko F.1.1 atalean adierazten diren baldintza eta kontrolak gorabehera, Reydesa Recycling SA sozietateak tratamendu-lerro hauetarako baldintza hauek betetzen dituela bermatu beharko du:

Transferentzia-zentroa – TEEHak aldi baterako biltegitratzea.

a) Gehienez 49 tona TEEH biltegitratuko dira, betiere Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren VIII. eranskinean zehaztutakoari jarraikiz.

b) Ahal den guztietan berrerabilera barne hartzen duten akordioak sinatuko dira. Horri dago-kionez, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren IX.A eranskineko irizpideekin bat etorritik berrikusi behar dira TEEHak norako horretarako.

c) TEEHei ezingo zaie R4 eragiketarik egin, kudeatzaile baimenduaren tratamendu espezifikorik jaso ez badute. Tratamendu horretan, gutxienez, mota guztietako jariakinak kendu beharko dira, olioak, lubrifikatzaileak eta bestelakoak barne, eta material eta osagaien tratamendu gaikakoa egin beharko da, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren XIII. eranskinean xedatutakoari jarraikiz. Era berean, TEEHak ezingo dira prentsatu, zatitu edo trinkotu, baldin eta aurretik igaro ez badute dagokion tratamendu espezifikoko prozedura.

d) Hondakin arriskutsuak ezingo dira sei hilabetetik gora biltegitratu.

e) Aldi baterako biltegitratzeko jardueran sortutako efluente oro, ur beltzak izan ezik, bereizita jaso beharko da, eta haren ezaugarrien arabera behar bezala kudeatu, eta ezin izango da sarera isuri.

f) Indarraldiaren arabera, Reydesa Recycling SLk eta enpresak bidalitako hondakin arriskutsuen kudeatzaile hartzaileen artean hitzartutako tratamendu-kontratuen indarraldia aldizka egiaztatu beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan. Hondakinak hartuko dituzten kudeatzaileak ez badaude Espainian kokatuta, mugaz gaindiko lekualdatzeak arautzen dituen Europar Batasuneko araudia bete beharko da.

TEEHen tratamendu-lerroak (G1, G3 eta G4).

Tratatu beharreko tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen gehieneko biltegitratze-gaitasuna 625 m²-koa izango da. Gainazal iragazgaitzeko eremuetan biltegitratuko dira. Horietan, isuriak biltzeko instalazioak egongo dira, eta gaitasuna izango dute espero diren karga guztiak hartzeko, betiere pabiloi estalian, aire zabaletik babesteko.

Manipulazio- eta tratamendu-eragiketak beti pabiloi estalian egingo dira; pabiloiak zoladura iragazgaitza izango du eta isurketak jasotzeko sistemez hornituta egongo da.

Bereizita jasotako tresna elektriko eta elektronikoetatik gutxienez honako osagai, substantzia eta prestakinak atera beharko dira, ingurumenera heda ez daitezen:

- Poliklorobifeniloak (PCB) dituzten kondentsadoreak.
- Merkurioa duten osagaiak; esaterako, etengailuak edo hondo-argiztapena duten bonbillak.
- Erremintarik erabili gabe, gailutik atera daitezkeen pilak eta metagailuak.
- Telefono mugikorretarako, oro har, eta bestelako gailuetarako zirkuitu inprimatuen txartelak, zirkuitu inprimatuen txartelaren azalera 10 zentimetro koadrokoa baino handiagoa baldin bada.
- Toner-kartutxoak, likidoa eta orea, baita koloretako tonerra ere.
- Olioak.
- Material piroatzeratzaile bromatuak dituzten plastikoak.
- Izpi katodikodun hodiak.
- Gasezko deskarga-lanparak.
- 100 cm² baino gehiagoko azalera duten kristal likidozko pantailak (armazoiarekin batera, hala badagokio) eta hondoko argiztapen gisa gasezko deskarga-lanparak dituzten guztiak.
- Amiantoa duten osagaiak.
- Kanpoko kable elektrikoak.
- Zeramikazko zuntz erregogorrek dituzten osagaiak.
- Substantzia arriskutsuak dituzten kondentsadore elektrolitikoak (altuera > 25 mm, diametroa > 25 mm edo antzeko bolumena).

Tresna elektriko eta elektronikoetatik bereizitako hondakin arriskutsu tratatuak biltegitratzeko gehieneko gaitasuna 20 m³-koa da.

Erabiltzen ez diren ibilgailuen tratamendua.

a) Jarduera oro hasi aurretik, Reydesa Recycling SAK baimendutako kudeatzaileak egindako onarpen-agiri bat eduki beharko du ibilgailutik bereizi edo kentzekoa den hondakin arriskutsu eta arriskugabe bakoitzeko, deskontaminazioa eta desmuntatzea bermatzeko, eta, hondakin bakoitzaren kasuan, bide hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

b) Hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako tratamendu-instalazioetan onargarriak direnen artean badaude, instalazio horietan kudeatuko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

c) Era berean, ibilgailuetatik bereizitako edo erretiratutako hondakin arriskutsuetatik birziklatu edo balorizatu daitezkeenak horretara bideratu beharko dira, Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeari jarraituz.

d) Ibilgailuaren gainerako zatia (EHZ 16 01 06) beste tratamendu-instalazio baimendu bati eman beharko zaio, han zatitzeko. Kudeaketa-bide hori ere instalazio horrekin sinatutako onarpen-agiria aurkeztuz egiaztatu beharko da.

e) Balio-bizitzaren bukaeran dauden ibilgailuak nahitaez eremu estali batean deskontaminatuko dira. Eremu horrek, era berean, zoladura iragazgaitza eta isurketak jasotzeko instalazioak izango ditu eta E.2.4.2a apartatuan adierazitakoetatik independenteak izango dira, aldi baterako biltegitratze-eremuaren eta deskontaminazio-eremuaren arteko bereizketak horrela eskatzen badu. Hormigoizko lauzazko iragazgaitza indartu egin beharko da, epoxi pintura-inprimaketa baten bidez eta/edo polietilenoazko xafla batez. Halaber, junturak eta lauzen pitzadurak zigilatze iragazgaitzaren bidez tratatuko dira.

Ibilgailuak ez dira bata bestearen gainean metatuko, ezta albo baten gainean edo sabaiaren gainean jarriko ere. Beren egoera dela-eta isurketak edo hondakin arriskutsuen galera eragin dezaketen ibilgailuak zaindu egingo dira, eta, kasu horretan, deskontaminazio-eremura lehentasunez igaroko dira.

f) Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak deskontaminatzeko, honako eragiketa hauek guztiak egingo dira:

– Bateriak, gas likidotuaren deposituak kendu.

– Leherkorrak izan daitezkeen osagaiak kendu edo neutralizatu (adibidez, airbagak).

– Honako hauek kendu, jaso eta bereizita biltegitratu, nahasteak tratamendua eragozten badu, Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21.b eta 21.c artikuluei jarraituz: erregai-iragazkiak, olio-iragazkiak, erregaia, olioak –motorrekoa, transmisiokoa, abiadura-kaxakoa, hidraulikoa eta balazta-likidoa–, likido hozgarria, izotz-kontrakoa, aire girotuko tresnen fluidoak eta ibilgailuek beren balio-bizitzaren amaieran duten beste edozein fluido.

Berrerabiltzeko prestatzeko erretiratutako osagaiak, zatiak edo piezak, eremu estali batean biltegitratzen badira, berrerabiltzeko behar diren likidoak eta guzti jaso ahal izango dira, erretiratutako iragazkiak ordezkatzeko dituzten euste-tapoiak jarrita. Beste edozein kasutan, iragazkien ordeztapoiak jarri ondoren, likidoak barne hartu ahal izango dituzte, berriro erabiltzeko beharrezkoak badira eta kopurua neurtuta-hagaxka bustitzera iristen ez dela.

– Merkurioa duten osagai guztiak kendu, ahal denean.

Ibilgailu elektrikoak eta hibridoak behar bezala manipulatzeko, eta, bereziki, horien bateriak erauzteko, hondakin horiekin lan egiten duten TIBetako profesionalek beharrezko kualifikazioa izan beharko dute.

g) Ibilgailuak deskontaminatzeko prozesuan –gehienez ere 30 eguneko epean egin behar da, jasotzen direnetik aurrera–, gutxienez honako hondakin arriskutsu hauek erretiratu beharko dira:

– Erregaiak (EHZ 130701*, 130702* eta 130703*).

- Transmisioko likidoak eta bestelako olio hidraulikoak, motorreko olioak, diferentzialekoak eta abiadura-kaxakoak (EHZ 130110*, 130111*, 130112*, 130113*, 130205*, 130206*, 130207*, 130208*, 130899*).
 - Likido hozgarriak eta izotz-kontrakoak (EHZ 160114*).
 - Balazta-likidoak (EHZ 160113*).
 - Bateriak eta metagailuak (EHZ 160601*, 160602*, 160603*, 160607*).
 - Olio-iragazkiak (EHZ 160107*).
 - Erregai-iragazkiak (EHZ 160121*).
 - Freno-zapata amiantodunak (EHZ 160111*).
 - Merkuriodun osagaiak (EHZ 160108*).
 - Aire girotuaren sistemako fluidoak, gas likidotuko depositukoak eta bestelako edozein fluido arriskutsu (EHZ 160504*, EHZ 140601*).
 - PCB/PCTzko kondentsadoreak (EHZ 160109*).
- Airbag-sistemak (EHZ 160110*) erretiratu edo neutralizatu egin behar dira.

Motor-blokea, diferentziala eta abiadura-kaxa, osorik berrerabiltzekoak badira, eta kasu horretan bakarrik, lubrifikatuta egon daitezke; beraz, bertan dauden olioak erauzi gabe.

h) Espresuki debekatuta dago ibilgailuei kendutako mota desberdinetako hondakin arriskutsuak elkarrekin edo beste hondakin batzuekin nahastea; hala, ez nahasteko, jasotze- eta biltegi-ratze-bitarteko egokiak eduki beharko dira.

i) Hondakin arriskutsu horien aldi baterako biltegi-ratzea zoladura iragazgaitzeko eremu estalietan egingo da. Beren egoera fisiko, likido edo oretsuagatik lixibiatuak sortu edo isuriak eragin ditzaketen hondakin arriskutsuen kasuan, horiei eusteko kubetak edo sistema baliokideak eduki beharko dira, isuriak geldiarazteko. Bilketa-sistema horiek independenteak izan behar dute jario-aren bat gertatu eta nahasiz gero arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakin-eraketa.

j) Ibilgailuen deskontaminazioaren ondorioz sortutako hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileari entregatu beharko zaizkio, apartatu honetako lehen puntuan ezarritakoaren arabera. Halaber, jardueraren garapenean sortzen diren hondakin arriskutsuak (ustekabeko isuriak, koipeen bereizgailuen hondakinak, bustitako xurgatzaileak, eta abar) baimendutako kudeatzaileari eman behar zaizkio, aldez aurretik kudeatzaile horrekin izenpetu beharreko onarpen-agiria bete ondoren.

k) Ibilgailuetatik erretiratutako hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegi-ratzeko edukiontziek edo andelek sektoreko araudian hondakin arriskutsuak ontziratzeke ezartzen diren segurtasun-arauak bete beharko dituzte, eta, bete ondoren, itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, isuririk edo lurruntzerik gerta ez dadin. Biltegi-ratzean, era berean, fluidoak dituzten edo berrerabil daitezkeen osagaiak kaltetzea saihestuko da.

l) Reydesa Recycling SAren instalazioetan gehienez ere 6 hilabetez egongo dira biltegi-ratuta ibilgailuetatik bereizitako hondakin arriskutsuak eta jarduera garatzean sortutakoak.

m) Deskontaminazioa egin ondoren, eta berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko, honako tratamendu-eragiketa hauek guztiak egingo dira, banan-banan:

– Katalizatazaileak kendu.

– Kobrea, aluminioa eta magnesioa dituzten elementu metalikoak kendu, metal horiek zatitze-prozesuan kendu behar ez badira.

– Pneumatikoak eta tamaina handiko plastikozko osagaiak kendu (adibidez, kolpe-leungailuak, aurreko panelak, fluido-deposituak, eta abar), material horiek zatitze-prozesuan kendu behar ez badira, material gisa birziklatu ahal izan daitezten.

– Beira kendu.

n) Desmuntatze-prozesuan, gutxienez, honako pieza eta osagai hauek kenduko dira, eta berrerabiltzeko prestatzen ez badira, hondakin arriskugabe gisa kudeatuko dira, kasu bakoitzean esleitutako EHZ kodearekin:

– Kobrea, aluminioa eta magnesioa duten metalezko osagaiak, metal horiek ondorengo birrinketa-prozesuetan bereiziko direla egiaztatu ezean (EHZ 160118 eta 160122).

– Katalizatazaileak (EHZ 160801).

– Erabiltzen ez diren pneumatikoak (EHZ 160103).

– Tamaina handiko osagai plastikoak, hala nola aurreko panelak, kolpe-leungailuak eta fluido-deposituak, material horiek ondorengo birrinketa-prozesuetan bereiziko direla egiaztatu ezean (EHZ 160119).

– Beira (EHZ 160120).

o) Berrerabiltzeko edo birziklatzeko prestatu ezin izan diren zatikiak balorizazio energetikora bideratuko dira, hierarkia-printzipioaren arabera.

p) Aurreko apartatuan adierazitako piezak eta osagaiak bereizita biltegitratuko dira, berrerabilgarriak direnak ez kaltetzeko; azken horiek birziklatzera bideratuko direnetatik bereizi behar dira.

q) Halaber, deskontaminatu edo desmuntatu ondoren horiek ibilgailuak biltegitratzeko gunean pilatuz gero, pilaketa horretan, beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak bermatu beharko dira eta ibilgailu horiek oraindik izan ditzaketen pieza eta osagai berrerabilgarriak kaltetzea saihestu beharko da.

r) Reydesa Recycling SAren instalazioetan hondakin arriskugabeak, gehienez ere, bi urtez egon ahal izango dira biltegitratuta kudeatzaile baimenduari entregatu arte, eta epe hori urte batera murriztuko da deuseztatzen bideratutako hondakinen kasuan (horretarako, aurretik, balorizatzerik ez dagoela justifikatu beharko da).

s) Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak tratatzeko zentroaren jardueran sortzen diren pneumatiko erabilezinei dagokienez, Erabiltzen Ez diren Pneumatikoei buruzko abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, Reydesa Recycling SAK ingurumenari dagokionez ondo kudeatuko direla bermatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeatzaile bati bere kabuz entregatuz.

Reydesa Recycling SAK, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuetako bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak berrerabiltzeko prestatzen baditu, berrerabiltzeko eta

bigarren eskuko pneumatiko gisa merkaturatzeko prestatu dituen pneumatikoen kopuru baliokide bat kudeatzaile baimendu bati bidali diola justifikatu beharko du ekitaldi bakoitzean. Betebehar hori honela bete ahal izango du: erabiltzen ez diren pneumatikoak tratatzeko baimendutako kudeatzaileekin egindako akordioen bidez, ekoizlearen ardura hedatuko sistemekiko akordioen bidez, edo bigarren eskuko pneumatiko horiek eskuratu dituzten profesionalek erabiltzen ez diren pneumatikoen kopuru baliokide bat horiek tratatzeko baimendutako kudeatzaile bati entregatu izanaren urteko ziurtagiri baten eta horri buruzko dokumentazioaren kopiaren bidez.

t) Apartatu honetako 2. puntuan adierazitakoari jarraituz, ibilgailuak deskontaminatu ondoren eta berrerabiltzeko edo birziklatzeko diren piezak eta osagaiak desmuntatu ondoren, Reydesa Recycling SA enpresak ibilgailuaren gainerakoa tratamendu-instalazio baimendu batera eraman beharko du, han zatikatu dezaten eta, modu horretan, bere jardueraren esparruan 265/2021 Errege Dekretuaren VII. eranskinean jasotako berrerabiltze-, birziklatze- eta balorizazio-helburuak betetzen direla bermatzeko (265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena).

u) Aldian-aldian, indarraldiaren arabera, Ingurumenaren Jasangarritasuneko Sailburuordetzan ziurtatu beharko da indarrean daudela Reydesa Recycling SAren eta enpresa horrek bidalitako hondakinen kudeatzaile hartzaileen artean ezarritako onarpen-kontratu edo -gutunak.

v) Reydesa Recycling SAk honako helburu hauek beteko ditu:

a) Urte osoan tratatzen dituen ibilgailuen pisuaren gutxienez % 10 osatzen duten ibilgailuetako osagai, zati edo piezak berreskuratuko ditu, berrerabiltzeko prestatu eta merkaturatzeko.

b) 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, urte osoan tratatzen dituen ibilgailuen pisuaren gutxienez % 15 osatzen duten ibilgailuetako osagai, zati edo piezak berreskuratuko ditu, berrerabiltzeko prestatu eta merkaturatzeko.

Horretarako, ibilgailuetatik atera eta bigarren eskuko pieza gisa saldutako osagai, zati edo piezak hartuko dira berrerabiltzeko prestatutakotzat, baita saltzeko asmoz ibilgailuetatik atera eta biltegiara eramandakoak ere.

Tratamendu mekanikoa.

Manipulazio- eta tratamendu-eragiketak beti zoladura iragazgaitz baten gainean egingo dira.

Jaso eta aldi baterako biltegitratzeko zentroa.

Aldi baterako biltegitratze-jardueraren barruan honako hauek sartuko dira: multzokatzea, produktua edukiontziz aldatu gabe, instalazioan horretarako gaitutako tokian 225 t inguruko ahalmenarekin, baita haren zama, hustuketa eta berrontziratzea ere beharrezkoa izanez gero, eta ez da ontzien barruko aldearen edo ontzietan gordetzen diren hondakinen gainean eragina daukan bestelako manipulaziorik aintzat hartzen.

Ontziratutako gabeko hondakinak beren izaera, osaketa eta kodifikazioaren arabera homogeneousak direnekin batera soilik biltegitratu ahal dira, eta aldeztu aurretik karakterizazioa egin beharko da, ziurtatzeko elkarrekin biltegitratzeak ez duela arriskua areagotzen, ezta haren azken kudeaketa zailtzen ere.

Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratutako hondakinek likido sukoiak eta erregaiak eta likido korrosiboak biltegitratzearen inguruan indarrean dagoen arautegian ezartzen

diren exijentziak bete beharko dituzte, baita suteen prebentzio- eta babes-arauak ere, eta behar bezala identifikatu beharko dira ezagutu eta bereizi ahal izateko.

F.2.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

F.2.2.1.– Baldintza orokorrak.

Reydesa Recycling SAren fabrikaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira atmosferara egindako emisioek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara jariatzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren behar izanez gero.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondoriozko efluenteez giza osasunerako eta segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik daudenaldiak.

Proiektuan aipatzen diren atmosferako kutsaduraren inguruko neurriak beti beteko dira, bereziki hautsa ez isurtzeko neurriak, hala nola agregakin-multzoak ureztatzea edo bideak garbitzea.

Atmosfera Kutsa dezaketen Jardueretarako Instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Honako elementu hauek atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-por-tuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako entitate batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

F.2.2.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Reydesa Recycling SA enpresaren hondakin arriskutsuen eta arriskugabeen kudeaketarako instalazioak urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren katalogoan bildutako 09100906 jarduerari lotutako honako foku konfinatu hauek ditu (errege-dekretu horrek atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen du eta bera aplikatzeko oinarrizko xedapenak ezartzen ditu):

| Fokua | Kodea | Izena | Altuera (m) | Sekzioa (m ²) / Diametroa (m) | Katalogazioa | Jarduteko araubidea |
|-------|---------------|--|-------------|---|--------------|---------------------|
| 2 | 0100005689-02 | 2. zatikatzailea | 10 | 0,63 | 09100906 | Foku sistematikoa |
| 4 | 0100005689-04 | 1. hondakin-lerroa | 12 | 0,8 | 09100951 | Foku sistematikoa |
| 5 | 0100005689-05 | 4. zatikatzailea | 15 | 1,25 | 09100906 | Foku sistematikoa |
| 7 | 0100005689-07 | 3. hondakin-lerroa (Ebaketa hibridoa eta bereizketa dentsimetrikoa) | 15 | 1,1 | 09100951 | Foku sistematikoa |
| 8 | 0100005689-08 | 5. zatikatzailea | 9,5 | 0,75 | 09100906 | Foku sistematikoa |
| 9 | 0100005689-09 | 4. hondakin-lerroa | 14 | 1,2 | 09100951 | Foku sistematikoa |
| 10 | 0100005689-10 | 1. zatikatzailea-berria | 15 | 0,24 | 09100906 | Foku sistematikoa |

Foku ez-sistematiko horietako bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen hasten bada eta aldi bakoitzak ordubete baino gehiago irauten badu, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupena orokorrean instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehu-neko bost baino handiagoa bada, emisio-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko gisa funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek ez badute bere horretan jarraitzen. Ingurumena zaintzeko dago-kion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

F.2.2.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira gaindituko muga-balio hauek:

| Fokuak | Substantziak | Emisioen muga-balioak |
|--------|---------------------|-----------------------|
| 2 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |
| 4 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |
| 5 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |
| 7 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |
| 8 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |
| 9 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |
| 10 | Partikulak, guztira | 5 mg/Nm ³ |

Balio horiek baldintza hauekin lotuta daude: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuko 9. artikulua arautzen duena beteko da. Ikusten bada emisioeko muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen,

zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

F.2.2.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuaren F.2.2.2 azpiapartatuan ezarritako goreneko kotatik behera. Honako elementu hauek atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Emisio lausoak minimizatzeko helburuarekin, ihesak atzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

F.2.3.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

F.2.3.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurpena sortzen duen jarduera mota nagusia: Euri-ur zikinak eta prozesatuak.

| Isurketa-gunea | Isurketaren jatorria | Ingurune hartzailea | Isurketa-gunearen UTM koordinatuak |
|----------------|---------------------------------|---------------------------|------------------------------------|
| V1 | Ur beltzak | Industrialdeko kolektorea | X: 528.473 Y: 4.755.070 |
| | Euri-ur zikinak eta prozesatuak | | |

F.2.3.2.– Isurketaren muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen parametroak Goia in industrialdeko kolektorearen erregelamenduan finkatutakoak izango dira –instalazioak horra egiten ditu isurketak– eta zerrenda honetan jasota daude, horietako bakoitzerako zehaztutako gehieneko mugak barne:

| Parametroak | Isurketaren muga-balioak |
|--------------------|--------------------------|
| Tenperatura | 40 °C |
| Kolorea | 400 (PT.) |
| OEB ₅ | 300 OEK <3 OEB* (mg/l) |
| OEK | 900 (mg/l) |
| Solido esekiak | 200 (mg/l) |
| NTK | 100 (mg/l) |
| Olioak eta koipeak | 75 (mg/l) |
| pHa | 6,5 eta 8,5 artekoa |
| Cn | 0,1 – 0,5 (mg/l) |
| Fe | 10 (mg/l) |
| Kromoa, guztira | 2 mg/l |
| Kromoa (VI) | 0,5 mg/l |

| Parametroak | Isurketaren muga-balioak |
|--------------------------------|--------------------------|
| Cu | 2 (mg/l) |
| Cd | 0,2 (mg/l) |
| Ni | 3 (mg/l) |
| Zn | 10 (mg/l) |
| Pb | 1 (mg/l) |
| Hg | 0,01 (mg/l) |
| Fenolak | 2 (mg/l) |
| S ₀₄ | 1.500 (mg/l) |
| S | 2 (mg/l) |
| Disolbatzaileak | 50 (mg/l) |
| Metalak, guztira | 10 (mg/l) |
| Bestelako kutsatzaile toxikoak | Zehazteke |

* Lagin dekantatueta

Horrez gain, emisioen muga-balio hauek ezartzen dira 1. isurketa-gunerako. Balio horiek betetzen diren ebaluatzeko, azken ingurune hartzaileira egindako isurketa ez ezik, eskualdeko hondakin-uren araztegi hartzaileko kutsadura-murrizketa ere hartuko da kontuan:

| Parametroak | Isurketaren muga-balioak |
|---|--------------------------|
| Hidrokarburoen indizea (HI) | 10 mg/l |
| Zianuro librea (CN-) | 0,1 mg/l |
| Substantzia organohalogenatu adsorbagarriak (AOX) | 1 mg/l |
| Artsenikoa (As) | 0,05 mg/l |
| Kadmioa (Cd) | 0,05 mg/l |
| Kromoa, guztira (Cr) | 0,15 mg/l |
| Kobrea (Cu) | 0,5 mg/l |
| Beruna (Pb) | 0,1 mg/l |
| Nikela (Ni) | 0,5 mg/l |
| Merkurioa (Hg) | 5 ug/l |
| Zinka (Zn) | 1 mg/l |

Ezin izango dira diluzio-teknikak erabili isurketen muga-balioak ez gainditzeko.

F.2.3.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek funtsean jarduera hauek hartuko dituzte barnean:

Euri-uren tratamendu fisiko-kimikoko eta prozesamenduko etapa, arrastatutako uren kutsadura posiblea industrialdeko kolektorera isuri aurretik ezabatzeko. Horrez gain, arazteko instalazioak prentsa-iragazki bat dauka, tratatutako solido esekien prezipitazioaren ondoren sortutako solidoen eraginez geratutako uraren zati bat ezabatzeko.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Reydesa Recycling SA enpresak behar diren aldaketak egingo ditu arazketako instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako bal-

dintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta behar izanez gero, baimena aldatzeko eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurpenak kontrolatzeko kutxatila bat jarriko da baimendutako hondakin-uren mota bakoitzerako; kutxatila horiek isurpenen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Administrazioak egoki deritzonean ikuskatzeko sarbide zuzena duen lekuan kokatuko dira kutxatilak.

F.2.4.– Instalazioetan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen denean. Birsortzea-berrerabil-tzea lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein moduren aurretik, izan materiala edo energetikoa.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortege baimenduan deuseztatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek karakterizatu egingo dira, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak xedatutakoari jarraikiz, eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko, kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazlee-tan ageri dira. Hargatik eragotzi gabe Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoa (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onar zen testu bategina), kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra dakarrenean.

Hondakinak biltegitratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan behar dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, haiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, gerta daitezkeen isuriak kanpora irten ez daitezkeen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarri-

tako irizpideekin bat etorri: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta hura izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira, edo ihesen bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Legutioko Udalean (Araba).

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren Lurraldearen Barruan Hondakinak Lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora errege-dekretu hori garatuta xedatutakoa bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri Ekonomia zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikuluekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Baldin eta hondakin arriskugabeak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da (hondakinen lekualdaketei buruzkoa da erregelamendua).

F.2.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin arriskutsu hauek aitortu ditu:

| EHZ | Hondakinaren deskribapena | Arriskugarritasun-ezaugarriak | Kudeatzeko modua | Biltegitratze mota | Sortze-prozesua | Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte) |
|----------|---|-------------------------------|------------------|--|--------------------------------|--------------------------------|
| 19 12 11 | Tratamenduko frakzio arriskutsuak | HP6 | R13 | Ateratze identifikatua | Ekoizpena-tratamendu mekanikoa | 25.000 |
| 08 01 11 | Pintura-hondakinak | HP6 | D15 | Jatorrizko potoak, ailarak jarri zaizkienak eta palet batean jarriak | Zerbitzu orokorrak | 500 |
| 12 01 09 | Olio urarekin | HP5 | D15 | Identifikatutako bidoia | | 1.000 |
| 12 01 12 | Argizari eta koipe erabiliak | H6 | R13 | Identifikatutako bidoia | | 150 |
| 13 02 05 | Olio erabiliak | H5/H6 | R9 | Bidoia | | 6.000 |
| 14 06 03 | Disolbatzaile halogenatugabea | H3B/H5 | R13 | Identifikatutako bidoia | | 150 |
| 15 01 10 | Hondakin arriskutsuak dituzten metalezko ontzi hutsak | H5 | R13 | Identifikatutako bidoia | | 250 |
| 15 01 10 | Hondakin arriskutsuak dituzten plastikozko ontzi hutsak | H5 | R13 | Palet identifikatua | 150 | |

2022ko abenduaren 15a, osteguna

| EHZ | Hondakinaren deskribapena | Arriskugarritasun-ezaugarriak | Kudeatzeko modua | Biltegiratze mota | Sortze-prozesua | Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte) |
|-------------|---|-------------------------------|------------------|-------------------------|-------------------------|--------------------------------|
| 15 02 02 | Hondakin arriskutsuz bustitako trapeak, iragazkiak eta xurgatzaileak | HP5 | D15 | Identifikatutako bidoia | | 620 |
| 16 01 07 | Olio-iragazkiak | H5 | R4 | Identifikatutako bidoia | | 250 |
| 16 01 21 | Gasolina-iragazkiak | H5 | D15 | Identifikatutako bidoia | | 250 |
| 16 05 04 | Aerosolak | H5 | D15 | Identifikatutako bidoia | | 100 |
| 20 01 21-31 | Lanpara fluoreszenteak | H6 | R13 | Identifikatutako saskia | | 40 |
| 06 04 04 | Merkuriozko etengailuak | HP5/HP6 | R13 | Identifikatutako kutxa | | 25 |
| 08 03 17 | Substantzia arriskutsuak dauzkaten inprimatze-tonerren eta -zinten hondakinak | HP14 | R13 | | | 100 |
| 13 02 08 | Olio hidraulikoa | HP6 | R9 | Metalezko bidoia | | 5.000 |
| 13 03 01 | PCBa duen olioia | HP6 | D10 | Metalezko bidoia | | 50 |
| 16 02 10 | PCBa duten transformadoreak | HP6 | R13 | Soltean | | 50 |
| 16 02 15 | Baztertutako ekipoetatik kendutako substantzia arriskutsuak | HP5 | R13 | SOH identifikatua | TEEHen deskontaminazioa | 6.000 |
| 16 05 07 | Berilio-oxidoa, berunezko soldadura-txartelak | HP6 | R13 | | | 50 |
| 16 06 01 | Berunezko bateriak | HP8 | R4 | Edukiontzia | | 5.000 |
| 16 06 02 | Nikel-kadmiozko metagailuak | HP6 | R13 | Plastikozko kaxa | | 200 |
| 16 06 03 | Merkurioa daukaten pilak | HP6 | R13 | Plastikozko kaxa | | 50 |
| 16 06 07 | Litioko bateriak | HP8/HP14 | R4 | | | 200 |

| EHZ | Hondakinaren deskribapena | Arriskugarritasun-ezaugarriak | Kudeatzeko modua | Biltegiratze mota | Sortze-prozesua | Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte) |
|-----------|---------------------------------------|-------------------------------|------------------|-------------------------|--------------------|--------------------------------|
| 16 06 08 | Nikel-metalhidrurozko metagailuak | HP8/HP14 | R13 | | | 100 |
| 16 06 09 | Beste metagailu arriskutsu batzuk | HP8/HP14 | R13 | | | 100 |
| 17 06 01 | Amiantodun materialak | HP7/HP6 | D13 | | | 50 |
| 17 06 03 | Zeramika-zuntz erregogorak | HP5 | R13 | | | 50 |
| 19 10 03 | Iragazki arrikutsuko hautsa | HP14 | R4 | | | 200.000 |
| 19 12 11 | Poliuretano-apar gasduna | HP15 | D15 | | | 50 |
| 20 01 21 | Fluoreszenteak | HP6/HP14 | R4 | | | 50 |
| 20 01 33 | Saillatu gabeko bateria arrikutsuak | HP6 | R13 | | | 50 |
| 20 01 42 | Litiozko pilak (etxeoak) | HP8/HP14 | R13 | | | 100 |
| 20 01 43 | Ni-metalhidrurozko bateriak (etxeoak) | HP8/HP14 | R13 | | | 100 |
| 20 01 44 | Etxeo beste metagailu batzuk | HP8/HP14 | R13 | | | 100 |
| 16 01 13 | Balazta-likidoa | H6 | D15 | Identifikatutako bidoia | | 25 |
| 16 01 14 | Likido hozgarria / izotz-kontrakoa | H6 | R13 | Identifikatutako bidoia | BBAren tratamendua | 25 |
| 13 07 02 | Erregaiak | H3B/H7 | D15 | Identifikatutako bidoia | | 25 |
| 13 05 02* | Lohi hidrokarburatuak | H6 | D9 | Zisterna | Mantentzea | Aldizkakoa (20 t) |

a) Hondakin arrikutsu bakoitzari dagozkion izendapena eta kodea hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera ezartzen dira, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarriko beste batzuk, euren izaera dela eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Honako hauek zehazten dituzte: zer hondakin mota den eta nolako osagai arrikutsuak dituen. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatze eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, leheneratzea edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo ezabatze-kodeak balorizatzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arrikutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira hondakinok isuririk gertatu eta nahasiz gero beren tipologia dela-eta arrikutsuago bihur daitezkeen edo kudeaketa zaildu daitezkeen kasuetan.

c) Hondakin arrikutsuak ontziratze, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arrikutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jarriak edo lurrunduta gal ez daitezzen.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratatu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Sanitarioen Kudeaketari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan ezarritakoak izango dira.

e) Hondakin arriskutsuek ezin izango dute 6 hilabete baino gehiago biltegitatuta egon. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organismoak aldatu ahalko du epe hori, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenbizikoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Reydesa Recycling SAK artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

h) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betekizunak konplitzen dituela.

i) Reydesa Recycling SAK erabilitako industria-olioen kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du bere enpresan erabilitako olioak.

j) Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko Errege Dekretuan (otsailaren 20ko 110/2015) xedatuaren arabera kudeatuko dira. Pilen eta metagailuen hondakinek, halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimenduaren onarpen-agiria izateko, eraman aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko bete-beharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen bada. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiria hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

k) Reydesa Recycling SAK, PCB eduki dezaketen gailuak dituzenez, haiek egoki kudeatu daitezzen, xedapen hauetan ezarritako eskakizunak bete behar ditu nahitaez: 1378/1999 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, Poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeke eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, eta 228/2006 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, errege-dekretu hori aldatzen duena.

l) Reydesa Recycling SAK Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduak adierazten dituen erabilitako substantziak baditu (ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa da erregelamendua), berreskuratu egingo dira substantzia horiek, alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz deuseztatzeke edo birziklatzeko edo birsortzeko, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko lanak egiten direnean edo aparatuak desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Reydesa Recycling SAK urtero adierazi beharko dizkio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta deklarazioaren ekitaldiaren amaieran aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

n) Hondakin arriskutsuen ekoizle gisa, artxibo elektronikoko batean, honako datu hauek jaso beharko dira, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatze produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraioidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

h) Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, Reydesa Recycling SA enpresak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta ingurumena zaintzeko dagokion programaren barruan, artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du, zeinak aipatutako legearen XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukia barne hartu beharko baitu.

p) Urtean 10 tonatik gora hondakin arriskutsuren hasierako ekoizlea bada, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluari jarraituz, Reydesa Recycling SAK minimizazio-plan bat izan beharko du, eta, planaren barruan, sortutako hondakin arriskutsuen kopurua eta horien arriskugarritasuna murrizteko hartuko dituen neurriak jaso beharko ditu. Plana agintari eskudunen eskura egongo da, eta, lau urtean behin, ekoizleak emaitzen berri eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Aurreko betebeharretik salbuetsita egongo da EMAS ziurtagiria badu, edo mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak barne hartzen dituen beste sistema baliokideren bat; horretarako, dagokion informazioa ingurumen-adierazpen baliozkotuan jaso beharko da.

q) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarritzko printzipioetako bat betetzeko, hau da, mota horretako hondakin ahalik eta gutxien sortzea, Reydesa Recycling SAK hondakin arriskutsuen sorrera minimizatzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, gutxienez lau urtetik behin, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikulua ezartzen duen moduan, baldin eta Reydesa Recycling SAK urtean 10 t hondakin arriskutsu baino gutxiago sortzen ez baditu edo EMAS ziurtagiri bat edo horren baliokide bat ez badu.

r) Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Reydesa Recycling SA, bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

s) Puntu honetako g) eta h) apartatuetan (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta o) eta p) apartatuetan adierazitako agiriak transakzio elektronikoko bidez bidaliko dira Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

t) Baldin eta hondakin arriskutsuak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren hondakinen lekualdaketei buruzko 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

u) Amiantoak duten hondakinak daudela hautemanenez gero, Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuaren 3. artikuluan eza-

rrita dauden eskakizunak bete beharko ditu Reydesa Recycling SAK. Horrez gain, amiantoaren duten hondakinak, kudeatzeko, 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera manipulatu dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienezko baldintzak.

F.2.4.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskugabeak honako hauek dira:

| EHZ kodea | Hondakinaren izena | Dagokion prozesua | Ekoizpen zenbatetsia (t/urte) | |
|-----------|---|-----------------------------|---|------|
| 08 03 18 | Tonerra (arriskugabea) | | 1.000 | |
| 16 02 16 | TEEH osagai arriskugabea | | 5.000 | |
| 16 06 04 | Pila alkalinoak | | 50 | |
| 16 06 05 | Sailkatu gabeko pilak | | 50 | |
| 19 02 10 | Olio arriskugabeak | | 50 | |
| 19 12 02 | Burdin metalak | | 500 | |
| 19 12 03 | Metal ez-burdinazkoak | | 500 | |
| 19 12 04 | Plastikoa eta kautxua | TEEHen deskontaminazioa | 0 1100 | |
| 19 12 04 | TEEH plastiko bromatugabea | | 500 | |
| 19 12 05 | Beira | | 10 | |
| 19 12 07 | Zura | | 10 | |
| 19 12 09 | Hormigoia (TEEH) | | 10 | |
| 19 12 12 | Tratamendu mekanikoko beste hondakin batzuk | | 5 | |
| 20 01 34 | Beste bateria arriskugabe batzuk | | 0,1 | |
| 20 02 01 | Papera eta kartoia | | 0,1 | |
| 16 01 03 | Erabiltzen ez diren pneumatikoak | | BBAI trat., deskontaminazioaren ondoren | 0,01 |
| 16 01 18 | Metal ez-ferrosoak | | | |
| 16 01 19 | Tamaina handiko plastikozko osagaiak | | | |
| 16 01 20 | Beirak | | | |
| 16 01 22 | Beste kategorietan aipatzen ez diren osagaiak | | | |
| 16 08 01 | Urrea, zilarra eta abar dituzten katalizatzaile erabiliak | | | |
| 170904 | Eraikuntzako eta eraisketako hondakinak | Obrak (aldizkako hondakina) | 10 | |
| 190814 | Dekantazio-hobiko lohiak | Araztegia | 10 | |
| 190814 | Solido prentsatuak | | 10 | |
| 191001 | Burdinazko hondakin zatikatua | Ekoizpena | 18.000 | |
| 191002 | Burdinarik gabeko hondakin zatikatua | Ekoizpena | 2.000 | |
| 150104 | Ontziak (burdinazko potoa) | Ekoizpena | 0,1 | |
| 191004 | Birziklatze-prozesuen zatiketako frakzio arinak | Ekoizpena | 5.000 | |
| 191006 | Zatiketako beste frakzio batzuk (filter) | Ekoizpena | 650 | |
| 191202 | Burdin metalak | Ekoizpena | 25.000 | |
| 191203 | Metal ez-burdinazkoak | Ekoizpena | 20.000 | |
| | | | | |
| 191212 | Harria | Ekoizpena | 500 | |
| 191212 | Birziklapeneko errefusa | Ekoizpena | 8.000 | |

a) Bigarren apartatuaren F.2.4. azpiapartatuan xedatutakoarekin bat etorritik eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, hartarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen denean. Justifikazio tekniko hori lortzeko, hondakin hori onartzeko baimenduta dauden hiru kudeatzailek ezetza eman behar diote kasuan kasuko hondakina balorizatzeari.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika eta behar bezala bereizi behar dira. Erabilitako ontziak eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, leheneratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati.

c) Hondakin horiek deuseztatzeke direnean, ezin dira urtebetetik gora eduki biltegitratuta. Balorizatzeke direnean, bi urtez eduki ahal izango dira.

d) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Reydesa Recycling SAK erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, hiru urtean gutxienez.

e) Hondakina zabortelean biltegitratuz gero, jarraipen eta kontrolerako agiria bete beharko da hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, bat etorritik Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoarekin.

f) Balorizatzeke edo ezabatzeko helburuarekin hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araberan.

g) Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Reydesa Recycling SA, bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

h) Urtean 10 tona hondakin arriskugabe baino gehiago sortuz gero, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikulua araberan, Reydesa Recycling SAK formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du, non jasoko baitira, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kopurua, mota eta jatorria, bai eta bererabiltzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeke produktu, material edo substantzien eta horien ondoriozko hondakinen kopurua ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzeko denean, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako eskatutako egiaztatze dokumentaleko informazioan oinarrituz egingo da. Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

i) Aurreko apartatuetan adierazitako honako agiri hauek ingurumen-organo honi bidaliko zaizkio, transakzio elektronikoen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabilita:

- Tratamendu-kontratua.
- Identifikazio-agiria.
- Jarraipen- eta kontrol-dokumentua, hondakina zabortegian uztekoa bada.
- Laburpen-memoria.
- Artxibo kronologikoa.

F.2.5.– Ontziak merkaturatzea.

Reydesa Recycling SA enpresak, bere produktuak merkaturatzeko ontziak eta bilgarriak erabiltzen dituenek, ontzi horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, ontzien gaineko urteko adierazpena egin beharko du. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko ditu datu horiek.

Era berean, Reydesa Recycling SAK ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko biltegi-ratze- eta itzultze-sistema bat ezarri beharko du (zuzenean edo kudeaketa-sistema integratu bati atxikita). Reydesa Recycling SAK, industria- edota merkataritza-ontziak Ontzien eta Ontzi Hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehen xedapen gehigarriari atxikiz merkaturatzen baditu, aipatutako betebeharrak horretatik salbuesteko eskatu ahalko du; atxikimendu horren bidez, ontzi horiek kudeatzeko eta ingurumen-organoari informazioa pasatzeko betebeharra produktuaren kontsumitzaileari transferitzen zaio.

Reydesa Recycling SAK ontzi-hondakinen kopuru hauek baino handiagoak sortu ditzaketen produktu ontziratuak eta, hala badagokio, industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu urte natural batean:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.
- 21 tona, plastikoa soilik bada.
- 16 tona, zura soilik bada.
- 14 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.
- 350 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Enpresaren Prebentzio Plan bat egin beharko du. Plan horrek hiru urteko indarraldia izango du, eta onartutako Enpresaren Prebentzio Planaren kontrol- eta jarraipen-txostena egin beharko zaio urtero, dagokion urteko martxoaren 31 baino lehen. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira bi agiriok.

F.2.6.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu Reydesa Recycling SAK, bat etorri urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuak (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzekoak) agindutakoak betetzeko aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenarekin, eta hor jasotako gomendioei jarraikiz.

Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuarekin, lurzoruaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin.

Era berean, aurreko lerrokadan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babes-teko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde egiaztatu batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Bat etorritz ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c) apartatuarekin, induskatu beharreko materialak (lurra, obra-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa modu egokiena zehaztearren.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m³-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketan bertan antzematen bazaio bolumen hori gaindituko dela, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzoruaren kalitatea iker-tzeko eta leheneratzeko egiaztatuta dagoen entitate batek egina. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du hura gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m³-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa egingo duen kontratu-dunaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erre-gistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzattia eta jar-duketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, baita zolatak ere.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulua honetan aipatutako kasuetan entitate egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeke txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m³-tik gorakoa bada, entitate egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, «Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gida»-n jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan «in situ» egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarritzko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazioan bertan berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa; horrez gain, lur horien hidrokarburo-educia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta lehenagoratzeko erakundeak egiaztatzeke sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-A ebaluazioko balio adierazleak baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpideak beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lursailetik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurra- ren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek hartu beharreko neurriak ezar ditzan, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatua betez betiere.

F.2.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Indize akustiko hauek gaindi ez daitezten, beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzetan barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu beharko zaie jarduera: etxebizitzaren barrualdean entzungo den $L_{Aeq, 60}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leihoak eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, apantailamenduak saihesteko behar den altuera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

| Zarata-indizea | dB(A) |
|----------------|-------|
| L_d | 75 |
| L_e | 75 |
| L_n | 65 |

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ($L_{Aeq, d}$, $L_{Aeq, e}$ eta $L_{Aeq, n}$) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq, T_i}). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneeetako zarata-maila.

G) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

G.1.– Atmosferara eginiko emisioak kontrolatzea.

a) Reydesa Recycling SA enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, honako informazio honen arabera:

| Fokua | Erregistro-liburuko izena | Fokuaren izena | Neurketa-parametroak | Kontrolen maiztasuna | Metodoak |
|-------|---------------------------|---|----------------------|----------------------|----------------|
| 2 | 0100005689-02 | 2. zatikatzailea | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |
| 4 | 0100005689-04 | 1. hondakin-lerroa | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |
| 5 | 0100005689-05 | 4. zatikatzailea | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |
| 7 | 0100005689-07 | 3. hondakin-lerroa (Ebaketa hibridoa eta bereizketa dentsimetrikoa) | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |
| 8 | 0100005689-08 | 5. zatikatzailea | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |
| 9 | 0100005689-09 | 4. hondakin-lerroa | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |
| 10 | 0100005689-10 | 1. zatikatzailea-berria | Partikulak, guztira | Sei hilean behin | UNE-EN 13284-1 |

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, igorpen bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

G.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua (Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen) eta abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina (Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

G.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analisi hauek egingo dira:

| Isurketa-gunea | Kontrolatu beharreko fluxua | Kontrol-kutxatilaaren UTM koordinatuak | Neurketa-parametroak | Kontrolen maiztasuna | Kontrol mota |
|----------------|-----------------------------|--|---|----------------------|--------------|
| 1 | Euri-urak eta prozesatuak | X: 528.473 Y: 4.755.070 | IH, OEK, KOG, SEG, As, Cd, Cr, Cu, Pb, Ni, Hg, Zn | Hilean behin | ILE |
| | | | PFOA, PFOS | Sei hilean behin | ILE |

b) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldian egingo dira beti.

c) Isuriak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiek betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.3.2 azpiapartatuan ezarritako mugak.

G.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko parametro-adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programarekin batera aurkeztuko du.

| Ingurumen-gaia | Adierazlea | Unitatea |
|---|--|-----------------------|
| Ur-kontsumoa | Ur-kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | m ³ /t |
| Energia-kontsumoa | Elektrizitate-kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | Kwh/t |
| | Gas naturalaren kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | m ³ /t |
| | Gasolio-kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | litro/t |
| Emisio atmosferikoak | Partikula solidoen isurketa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | mg/Nm ³ /t |
| Hondakinen sorkuntza | Hondakin arriskutsuen sorrera, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | Tona/t |
| | Hondakin arriskugabeen sorrera, tratatutako hondakin tona bakoitzeko | Tona/t |
| | Mahuka-iragazkietan hautsak sortzea | Tonak |
| Istripuzko isuriekina lotutako gorabeheren kopurua | Kop./urte | urtean behin |
| Ekoscan/URTEA eta/edo ISO14001/Urtea eta/edo EMAS/Urtea | Bai/Ez Zein/Urtea | urtean behin |

G.4.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bi urtean behin: L_d , L_e , L_n , $L_{Aeq,Ti}$ eta $L_{Aeq,60}$ Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste periodikotasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Aurreko apartatuan adierazitako ebaluazio guztiak akustikaren esparruan laginketa espazial eta tenporala egiteko UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberrako ziurtagiri bat duen ingurumeneko entitate laguntzaile batekin egin beharko ditu. Ingurumen-organoak, nolana ere, ebaluazio horiek egiten dituzten entitateek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

G.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu beharko dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoki jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Hala, aipatutako programak zehaztutako aldiaren egiten diren kontrol guztiak, ibilgura eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honi, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako helbide elektronikoa: ippc@euskadi.eus

Horrez gain, urtea baino denbora-tarte luzeagoko maiztasunarekin egiten diren kontrolak, soilik, kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan bidali behar dira.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, hauek jasoko dira: neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua; prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak, eta emaitzen analisia. Eta bereziki aipatuko dira epe horretan izandako gertakari nagusiak, eta haien kausa eta konponbideak izan daitezkeenak, eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik zehaztu ez bada.

G.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategin bat egin beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak biltzen dituen. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazle bereizgarrien zehaztapena eta adierazle horiek aztertzekeo sistematika jaso beharko ditu, enpresak berak ingurumen-hobe-kuntza ziurtatzeko ezarritako neurri eta mekanismoen (ingurumen-adierazleak) eraginkortasuna egiaztatzekeo.

G.7.– Lurzoruaren eta lurrazpiko uren kontrola.

Lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostena eguneratuta aurkeztu beharko zaio organo honi. Horretan, gaur egun dauden instalazio guztiak kontuan hartu behar dira, eta I. taldeko jarduerari dagokion edukia sartu behar da, organo honek prestatutako prozeduraren arabera. Prozedura hemen dago eskura:

<https://www.euskadi.eus/lurzoruaren-kalitatearen-ikerketak/web01-tramite/eu/>

Era berean, eguneratzeak lurzorua eta lurpeko uren kalitatea kontrolatzeko proposamen bat barne hartu beharko du. Proposamen horrek gutxienez hauek bilduko ditu: karakterizazioa egiteko bi zundaketa egitea, erauzitako zutabea karakterizatzea eta lurpeko uren segimendua egiteko erabiliko diren piezometroak prestatzea. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa, eta, hartara, instalaziotik gorako eta beheko uren jarioa alderatu ahal izango da. Jakinarazi beharko da instalazioa kokatzen den lurzatiak eraginik duen interes hidrogeologikoko lekuetan (IHL), jabari publiko hidraulikoan edo Eremu Babestuen Erregistroko lekuetan (EBE).

Bestalde, proposamen bat egin beharko da kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudian deskribatzen den oinarri-txostena edo hasierako egoeraren txostena egiteko beharrari buruz, Batzordearen komunikazioaren jarraibideen arabera. Europako Batzordearen abiapuntuko egoerari buruzko jarraibideak, Emisio Industrialei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 2. apartatuaren esparrukoak (2014/C 136/03), hemen eskura daitezke:

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:C:2014:136:FULL&from=ES>

Agiri horretan deskribatutako metodologiaren aplikaziotik ondorioztatzen bada nahitaezkoa dela oinarriko txostena egitea, txosten horrek eskatzen dituen datuak lortu ahal izateko ikerketa-estrategia aurkeztuko da. Aitzitik, baldin eta ezinezkoa bada instalazioak lurzoria edo lurpeko urak kutsatzea, hori justifikatzeko memoria bat aurkeztuko da.

Edozein kasutan, lehenik eta behin, ingurumen-baimen integratuaren peko instalazioak eta horrekin lotura tekniko bat daukatenek erabilitako, sortutako edo isuritako substantzia eta nahasketak arriskutsu guztiak (lehengaiak, produktuak, bitarteko produktuak, azpiproduktuak, emisioak, hondakinak, eta abar) zehazki identifikatu beharko dira eta horien kopurua adierazi beharko da. Bigarrenik, substantzia/nahasketa horietako bakoitzak lurzorua eta lurpeko urak kutsatzeari begira duen garrantzia baloratuko da, baita ingurune horiei eragiteko arriskuari begira ere. Informazio hori eta instalazioaren operadoreak aurkezten dituen datu kuantitatiboak (lurzoruaren kalitateari buruzko aurretiazko ikerlanak, lurpeko uren kontrol- eta segimendu-emaitzak, eta abar) aztertuko ditu organoak, eta horren arabera erabakiko du Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean deskribatutako oinarri-txostena edo hasierako egoerari buruzko txostena egin behar den (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen lege horren testu bategina). Txosten horretan, substantzia arriskutsu nabarmenak direla-eta lurzoruak eta lurpeko urek duten kutsadura-egoerari buruzko informazioa jasoko da, jarduera behin betiko amaitzen denean konparazio kuantitatiboa egin ahal izateko, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen lege horren testu bategina).

Entitate egiaztatu batek prestatu beharko du apartatu horretan ezarritakoa betetzearren aurkeztu beharreko informazioa, bat etorritik urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan ezarritakoarekin eta orobat organo honek hartarako onar ditzakeen jarraibideetan ezarritakoarekin (199/2006 Dekretuaren bitartez, lurzoruaren kalitatea ikertu eta lehengoratzeko erakundeak egiaztatuzeko sistema ezartzen da, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egin beharreko ikerketen edukia eta norainokoa zehazten da).

H) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jarduteko baldintzak.

H.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren isurketen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren apartatuko F.2.4 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik (azpiapartatu horren izena: «Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak»), baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

H.2.– Jarduera bertan behera uztea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituenak. Horrenbestez, Reydesa Recycling S.A. jarduera-etete horren berri eman beharko dio ingurumen-organismoari, bi hilabeteko epea igaro baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta noiz hasiko den lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea beranduenez, bat etorritik ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Reydesa Recycling SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren atalaren F.2.4 azpiatalean ezarritakoarekin bat etorritik.

H.3.– Jarduera aldi baterako uztea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Emisioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Reydesa Recycling SAK, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen isuri edo emisio oro saihesteko.

H.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta funtzionamendurako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, apartatu hauek aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuzko isurketak edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak gertatuz gero lurzoria babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzoria kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako emisioak eta isuriak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak beharrezkoa den maiztasunez aterako dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura botako aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegi baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegitratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneean.

Instalazioek lohien tratamendua badute, lohi horietatik hustutako ura berriro bideratu beharko da arazketa-instalazioaren sarrerara, tratatu dadin.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-ura «bypass» bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez bypass bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuta. «Bypass» horrek aurreikusi gabeko isurketaren bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, eta dagokion txostena Ingurumen Sailburuordetzara bidali (apartatu honetako j) letran adierazitakoari jarraituz).

b) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta, bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita atzemandako gorabeherena ere.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu eskura, arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkor mantentzeko.

d) Besteak beste erabilitako olioak, efluenten arazketako hondakinak eta fabrikan sortutako hondakin gehienak maneiatzean, liteekena da lurzorua eta ura kutsatzeko arriskua izatea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hauts-itxurako produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak izan beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegitratuko dira, halako baldintzetan ezen ezin izango baitira ingurunean sakabanatu.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratze-instalazioek eskakizun batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guttien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gertatzen diren isurketei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipo egokiak.

i) Ontzien hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura bat edukiko dute. Bertan, instalazioaren eraginkortasunari eragiten dioten isurketak instalaziora joatea saihestu beharko da.

j) Gorabeheraren bat izanez gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragiten dituen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere zuzenketa- edo euste-neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Hala badagokio, epe laburrera aurreikusitako jarduketak.

Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko emisioen bat egonez gero, SOS DEIAK eta Legutioko Udala jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gertakariaren iraupena.
- Istripuzko isuria gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisa barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

l) Baldin eta arautegi berria indarrean sartu dela-eta edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharra dela-eta komenigarria bada, aldarazi ahal izango dira neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa alda daitezke, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

J) Urtean behin, martxoaren azken eguna baino lehenago, Reydesa Recycling SAK aurreko urteko emisio atmosferikoei eta uretara egindako emisioei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko 508/2007 Errege Dekretuarekin bat etorrituz.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorrituz uztailearen 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

K) Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, honako helbide elektronikoa honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da aldez aurretik:

https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_20194_158_89_9329/procedures/proc_20194_158_89_9905/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones_eu.docx

Organo horren onspena ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak, zeinaren bidez onartzen baita Industriako Emisioen Erregelamendua eta garatzen baita kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea, 14.1 artikuluan ezartzen du zer irizpide hartu behar diren kontuan aldaketa funtsezkotzat jotzeko.

Nolanahi ere, bat etorri urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan xedatutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorri abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa egin aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

L) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake».

Laugarrena.– Reydesa Recycling SAri emandako ingurumen-baimen integratua berrikustea, eta hiru hilabeteko epea ezartzea hondakinak, lehengaiak eta produktuak biltegitatzeko, manipulatzeke eta tratatzeko eragiketa guztiak pabiloi itxietan egiteko instalazioak eta kronograma jasoko dituen proposamen tekniko bat aurkezteko, organo honek onar dezan.

Proposamenarekin batera, hirigintza-bateragarritasuna justifikatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

Bosgarrena.– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen lege horren testu bategina), hondakin arriskugabeak kudeatzeko instalazioari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa oro jakinarazi beharko dio Reydesa Recycling SAK Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Seigarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategina), eta lege horren 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Reydesa Recycling SA enpresari, Legutioko Udalari, ingurumen-baimen integratua berrikusteko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Zortzigarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 17a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.